

Bapatean 2023

BAPATEAN 2023

Grabaketak: Xenpelar Dokumentazio Zentroak, Bertsozale Elkarteetako sail desberdinei zein borondatezko grabatzaileei esker jasotakoak.

Bertsoen hautaketa eta transkribaketa: Felix Irazustabarrena eta Karlos Aizpurua.

Argazkien hautaketa: Olatz Amundarain.

Dokumentazioa: Xenpelar Dokumentazio Zentroa.

Irizpideak eta koordinazioa: Bertsozale Elkartea.

Doinuen izendapena: Felix Irazustabarrena eta Karlos Aizpurua; Bertsolaritzaren Doinutegian oinarrituta eta Doinutegi Batzordearen babesarekin.

Argitalpen honek Eusko Jaurlaritzako *Ondarea* dirulaguntza jaso du.

Argitalpen honek Gipuzkoako Foru Aldundiko *Oreka* dirulaguntza jaso du.

© EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE ELKARTEA

Maketazioa: Dixidu Diseinu Grafikoa

Argitaratzailea:

BERTSOZALE ELKARTEA

Nagusia, 70

20.150 Villabona

ISBN: 978-84-89283-64-0

Lege Gordailua: D- 00135-2024

AURKIBIDEA

Hitzaurrea 4

Argibideak eta irizpideak 6

Bat-bateko bertso hautatuak 9

Bat-bateko sariketak 95

Bertso saioen mugimendua 117

Tauletako kontzeptuen azalpena 121

Aldizkako ekitaldiak: txapelketa eta sariketak 125

Saioen aurkibidea 129

Bertsolarien aurkibidea 135

Izen eta izengoitien deskribapena 139

Hitzaurrea

BERTSOAREN POTRETAK

Urte bat gehiago joan zaigu ziztu bizian…

Urte berriari atea zabaldu zion Bertsolari Txapelketa Nagusiak eta honek ufatutako haizea sumatu da urte hasiera guztian.

Gai jartzaileontzat ere, Txapelketa Nagusiaren ondoko garaia berezia izaten da. Pausa bat egiteko beharraz gain, hainbertze hilabetez elkarlanean landutako gogoetak, irekitako bide berriak eta gure buruari jarritako zorroztasuna plazaratzeko gogoa ere agertu zaigu.

Erran behar da, Euskal Herriko lurralde desberdinetako gai jartzaileok gutxitan dugula elkarrekin lan egiteko aukera, ez bada Txapelketa Nagusian. Alta, garrantzia handia dauka elkarrekin gure rolari buruzko iritziak trukatu ahal izateak, aho batez gure eginkizuna zehazteak… Ohartzen gara denek kezka edo arrangura berdinak ditugula.

Gai honen aipatzeak merezi ote du? Eta hau berriro? Ez ote dugu gehiegi entzun honi buruz azken garaietan? Hau ez ote da desegokia? Ez ote du bertsolaria deseroso jarriko? Entzulea prest ote da honi buruz kantatzen entzuteko? Baztertuko dugu gai hau?

Familia bazkarietan gai mingarriak saihesten direnean bezala, familia izaten segitzeko gisan.

Gaiari zer forma eman?

Gaia zehaztu, ireki, estutu, biluztu, apaindu… Nola formulatu genero ikuspegitik edo lurraldetasun aldetik inklusiboago izateko, nehor bazter ez uzteko?

Bertso txapelketen edo bertso saioen sukaldean zenbat buruhauste eta eztabaida, gaia oholtzan zerbitzatu aitzin!

Berezia da gai jartzailearen papela. Alegia, gai baten sortzeko itzalpean egiten den zizelkaritza lana: interesgarria iruditzen zaigun gogoeta bati ate bat irekitzeko, *back-stage*-ean irudikatuz bertsolariak nola ulertuko lukeen gaia, zein erabaki hartzen ahal lituzkeen eta honen arabera gaia hobetu, aldatu, egokitu, gerorako utzi… eta ahoskatu orduko, gai hori eskapatzen utzi. Onartu ez dela gehiago gurea, eta hain segur, sukaldean pentsaturiko errezetak ez duela oholtzan guk desiratutako platerraren forma hartuko.

Aurten, hainbat lurraldetan jokatu dira txapelketak: batetik, Nafarroa Garaian eta Bizkaian bakarkakoak; eta bertzetik, Zuberoa, Lapurdi eta Baxenafarroan taldekako txapelketaren aldi izan da.

Txapelketa; lehia eta bere itzala… Plazan, bertso eskolan, taldekide edo partaide zirenak zeingehiagokan ibiltzera behartzen dituena. Formatu definitu batean, sailkapen baten goia eskuratzeko lehian jartzen ditu bertsolariak. Elkarrekin kantatzen dute, bertsoak ehuntzen, baina elkarren aurka… Lehia, egoak eta presioa…

Ez da hain arraroa, eskolatik hasita lehiakortasuna baizik baloratzen duen mundu batean, bertsolari txapelketen bidez ere erregularki balore bat eman nahi izana bertsolariei. Zorigaitzez horrela da! Txapelketan "ongi" ibilitako bertsolariak plazan kantatzeko aukera gehiago ditu. Txapelketak erakusleiho balira bezala: "Hemen daukazue 2023-2024 urteko kolekzioaren katalogoa…"

Badakigu formatuak bere mugak dituela. Lehiakortasun sistemarekiko kritikoak gara, baina sistema horren parte gara… Ez da erraza bide berriak irekitzea edo barneratutako ibilmolde orokorrekin haustura bat markatzea...

Hori ote da bertsoaren errola? Hain zuzen, hemen dago koska… Bertsoak ez du gizartea edo sistema eraldatzeko xederik, baina botatako bertsoek gehienetan anitz erraten digute garai jakin bateko gizartean diren arrangurei buruz. Funtsean, gizartean integratutako gizakiek egindako hautu kontzienteen, edo ez hain kontzienteen, emaitza baita bertsoa; usu gai jartzailetik hasi, bertsolariek gauzatu eta entzulego zehatz bati zuzentzen zaiona.

Bertsoaz gozatzeko paradarik ez da falta izan aurten, eta zuk, irakurle, hemen atzemanen duzu orotariko bertso plazetan bat-batean botatako bertsoen lagin bat. Gizartearen argazki honekin gozatuko duzulakoan...

Amaia Castorene Luro

Argibide eta irizpideak

ARGIBIDEAK ETA IRIZPIDEAK

1.- Urtean urteko bat-bateko bertsogintzaren lekuko izateko helburuarekin Bertsozale Elkarteak urtero argitaratzen duen bertso bilduma da *Bapatean*.

2.- *Bapatean 2023*an, 66 bertso saioetatik hartuta, 83 bertsoalditako 653 bertso datoz transkribaturik, gai, doinu izen eta ohiko informazio guziarekin.

3.- *Bapatean* antologia bat dela esan daiteke hein batean, baina ez bere osotasunean. Liburuaren corpus nagusiak herritarrek antolatutako bertso saioetan bat-batean kantatutako bertsoak jasotzen ditu, bertsolariak eta horien saio kopuruak kontuan harturik.

4.- Badakigu egiten diren bertso saio guztien informazioa biltzea ia ezinezkoa dela, baina ziur gaude ehuneko handi batean jasota dagoela. 2023an 350 saio grabatu dira entzuteko euskarrian; 525 oren orotara.

5.- 2023. urtean, bat-batean kantatutako bertsoak hartu dira kontuan liburu hau egiterakoan, txapelketetakoak izan ezik. Bertsopaperen alorrekorik ere ez da jaso, baina bai bat-bateko gazte sariketetakoak.

6.- *Bat-bateko bertsoak idatziz emateko irizpideak* (2) (Bertsozale Elkartea, 2023) hartu dira oinarri bertsoak transkribatzerakoan; eta bertan aholkatzen den modura jaso dira kokapen irizpideak. Doinuak, berriz, J. Dorronsorok bildutako *Bertso Doinutegiaren* (3) arabera izendatu dira. Bestalde, Bertsozale Elkarteak onartutako *Bertso estrofak izendatzeko irizpideak* (4) lanaren arabera izendatu dira neurriak liburu honetan.

7.- Xenpelar Dokumentazio Zentroan (XDZ) jasotako informazioa, grabazioak eta horien fitxak baliatu dira liburu hau egiteko.

8.- Bapatean egitasmoak Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuordetzaren *Ondarea* dirulaguntza jaso du. Horrezaz gainera, Xenpelar Dokumentazio Zentroaren jarduera babesten dute: Eusko Jaurlaritzak (Kultura sailburuordetzak; Ondarea), Nafarroako Gobernuak (Euskarabidea) eta Gipuzkoako Foru Aldundiak (Hizkuntza Berdintasuna).

9.- Jende askoren emaitza da liburu hau. Borondatezko grabatzaileen zerrenda luzea da eta guztioi esker jaso ahal izan dira grabazioak. Beraz, eskerrik beroenak bihotz-bihotzez saio erdi, oso bat edo hamaika grabatu eta XDZra helarazi dizkiguzuen hainbeste bertsozaleri.

10.- Bertso lerroak idazteko bi tradizio ditugu bizirik: batetik, puntu osoa lerro bakarrean idaztekoa (Lapurdi, Zuberoa eta Baxenabarren) eta bestetik, hemistikioka idaztekoa (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaian). Bi tradizioek bizirik segi dezaten, bat-bateko bertsoak idatziz emateko irizpideei jarraiki, holaxe jokatu dugu:

- Lapurdin, Baxenabarren eta Zuberoan sortutako bertsoen puntuak lerro bakarrean ematea.
- Arestian aipatu kasuetan, araberako neurrien izendapena baliatzea (adibidez: zortziko txikia beharrean, lau puntuko txikia).

Aurrerantzean ere, eta guztioi esker, ahozko ondare hau biltzen, antolatzen eta hedatzen ariko gara hau bezalako argitalpenen bidez.

Bertsozale Elkartea

(1) https://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/bilaketa

(2) https://bdb.bertsozale.eus/web/liburutegia/view/12651-bat-bateko-bertsoak-idatziz-emateko-irizpideak

(3) http://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/bilaketa

(4) https://bdb.bertsozale.eus/web/liburutegia/view/3418-bertso-estrofak-izendatzeko-irizpideak

Bat-
bateko
bertso
hautatuak

AMURRIO

2023-01-04

Bertsolariak

Joanes Illarregi, Alaia Martin, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Oihana Iguaran, Beñat Gaztelumendi, Nerea Ibarzabal eta Julio Soto

Gai-emailea

Aintzane Irazusta

Amurrio Antzokian beste urte batez finalisten saioa egin da. Txapelketa Nagusiko zortzi finalistak gonbidatuta, hauetako bik huts egin dute. Ordezkoek kantatu dute.

A. Mendiluze – M. Lujanbio

Gaia: 70 urtean lehendabiziko aldiz dentistarengana joan da Maialen. Aitor dentistak esan dio urtero joan beharra dagoela dentistara errebisioa egitera.

Neurria: Zortziko txikia
Airea: *Mando baten gainean I*

M. Lujanbio
Hasi batetik eta
segi hamarrera
ez naiz inoiz etorri
ta hemen gaur bera.
Ez dut horren berandu
abitu karrera
urtero etorriko naiz
hemendik aurrera.

A. Mendiluze
Beraz orain urtero
helduko zera zu
behingoz haginlariai
egiteko kasu
arren zaudela geldi
ta utzi zaidazu
bi haginen artean
beldur bat daukazu.

M. Lujanbio
Beldurra zuri dizut
ez baitzaitut laket
honera etortzeko
erreparoa det
hortz onak dauzkadala
aitortu dezaket
ez balizkit puskatu
turroi eskas batek.

A. Mendiluze
Urtero turroi zuri
gogorra opari
eta zuk koska egin
behar noski hari
aitzaki txarra entzun det
nik ondotik adi
kasu egin behar diozu
zeure buruari.

M. Lujanbio
Neure buruai kasu
eginez horrela
pentsa ia ehun urtean
etorri ez naizela!
Orain hortza hautsi zait
ez nun uste bela
isildu, ta pegatu
lehen zegon bezela.

A. Mendiluze
Beraz jarri nahi nauzu
konpontze lanetan
zeozer egiteko
zure haginetan
behin pegatzen hasita
duda det benetan
kola hortzetan eman
edo ezpainetan.

M. Lujanbio
Ezpainak pegatzea
orduan nahiago
zabaldu ez ditzadan
begi eta aho
badaezpada pentsatu
ein baino lehenago
nere kartera ere
itsatsita dago.

A. Mendiluze
Banekien kolatik
osatuko zela
uste al dezu ni atzo
hasia naizela?
Baina moldatuko naiz
lasai zaitezela
kartera zulatzeko
hagina bezela.

M. Lujanbio
Lehengo elikadura
eta lehengo era
orain horren hortz onak
ez dauzkate keba!
Denak balin badute
ai! Nere manera
zure negozioak
laister luke kiebra!

A. Mendiluze
Ez, jendea zaintzen da
zu baino gehiago
ni lan aldetik behintzat
osatuta nago
ta erronka jartzen dizut
beldurraz harago
beste behin zatoz behintzat
hil baino lehenago!

HERNANI

2023-01-13

Bertsolariak
Aitor Mendiluze eta Agin Laburu

Txotx denboraldia irekitzea dela eta, Itxasburu sagardotegiak antolatutako bertso afaria.

A. Mendiluze - A. Laburu

Gai librean.

Neurria: Zortziko txikia
Airea: *Aitu behar dituzu*

A. Laburu
Asko jaiotzen dira
sagardoz jakinda
ta hemen jartzen dute
jakinduri ginda
baino aurten sagarrik
izan ez balinba'
aurtengo sagardua
zerekin egin da?

A. Mendiluze
Sagardogile hauek
a ze bertutea
haririk gabe ere
zerbait irutea!
Sagarrik ez dela ta
nola jardutea
ez dek txarra izaten
udare urtea.

A. Laburu
Beraz udaretikan
dek hire juzkua
nik ere egingo det
nere apustua
hirugarrena ere
ez zegon justua
ez zun kasualidadez
platano gustua.

A. Mendiluze
Zer esplikatuko dik
ez dakien batek
sukaldera juan eta
galdetu dezakek
baina denetik zeukak
kupeltegi honek
hau ez dek sagardoa
mazedonia dek.

A. Laburu
Hemen mezua argi
egin dek igorri
gezurrik ere ez zaio
kontatzen iñorri
aurre eginez hainbat
gastu eta zorri
gaur egunean *I más D*
deitzen zaiok horri.

A. Mendiluze
Nik ez diat esango
hain oker hagola
baina egia esaten
hasiz gero hola
tokatzen baldin badek
hemen ez dagola
beti dek emailea
Frantziko arbola.

A. Laburu
Frantziako arbola
dio ta akabo!
Handikan egin behar
aurtenguan trago
hik ere jakingo dek
ni entzunda nago
aurten badituela
bi gradu gehiago.

A. Mendiluze
Ba bai jakinda negok
aurten gradu gehio
sagarra omen zetorren
azukre karraio
halere probatzea
denek ere nahio
norbait izen bat zeukan
atzemango zaio.

A. Laburu
Baino hemen guztiyek
zulua ipurdin
igual diyo gabian
bezela eguerdin
dantzan hasi litteke
kupeltegi erdin
iaz mozkortzen zana
aurten ere berdin.

A. Mendiluze
Bai ez baldin badiyo
edanari uzten
zaku ona zaila da
gero erakusten
begira beste hoiek
ze planta dituzten
norberak ez dik bere
mozkorrik ikusten.

TOLOSA

2023-01-21

Bertsolariak
Alaia Martin, Oihana Iguaran, Amets Arzallus, Jexux Mari Irazu, Sustrai Colina eta Nerea Ibarzabal
Gai-emailea
Amaia Agirre

Sarrera guztiak aurrez saldu dira, Leidor aretoa beste urte batez lepo beteta burutu da Tolosaldeko Atariak antolatzen duen jaialdia. Zenbait bideo proiekzio erabili dituzte gaiak aurkezteko edo osatzeko.

N. Ibarzabal

Gaia: Irakaslea zara. Azkenaldian kezkatuta zaude ikasle batekin. Arropa aldatu gabe, garbitu gabeko ilea, eskolako lanak egin gabe... Gaur, beregana hurbildu eta esku ahurrez bizkarra ukitu diozunean sekulako saltoa eman du "Ez ikutu! Ez ikutu!" hasi zaizu oihuka. Aulkitik altxa eta iskin batean eseri da; burua belaun buruetan sartu du eta negarrez hasi da.

Neurria: Hamarreko handia
Doinua: *Gure aurreko guraso zaharrak*

N. Ibarzabal
Esan ziguten, baina gogorra
da irakasleon lana
ikasgelara mugatzen dugu
jendarteko harremana
ta zer ote da gaztetxo honen
bizitzan gertatzen dana?
Ze gabezi du bere etxean?
Zer gurasoek esana?
Ez bereiztera iristeraino
kolpea eta laztana.

Aztoratzen nau bere erantzunak
amorruak eta grinak
arretarako ta azterketetan
badauzka bere ezinak
baina zein dira dauzkadan tresnak?
Notak eta examinak
bronka puntualak, elkarrizketak
ta begiratu gordinak.
Gela batean ezin konpondu
gizarteko itokinak.

Baina utopia helmuga bat da
ta ezin da ahaztu sekula
nahiz orain urrun izan nahi nauzun
ta egin nahi didazun burla
desio dizut bare dadila
zure barne pelikula
ta zeuk nahi duzun distantziatik
egingo dizut xuxurla.
Besarkada bat nahi duzunean
jakin hemen naukazula.

A. Martin - S. Colina

Gaia: Sustrai, mutil galai eta erromantikorik inor bada, hura zu zara. Duela gutxi ezagutu zenuen Alaia, eta argi daukazu lehenengo zita bezain garrantzitsua dela bigarrena ere. Larunbat arratsaldea da Alaia, eta gaur ere begiak itxita zaramatza Sustraik bere auto garbitu berrian. "Zabaldu begiak *pitxin*, iritsi gara.". Alaia, zure aurrean golf zelai eder bat dago, eta esmokina daraman morroi bat zure oinetako, traje eta makilak eskuan zure zerbitzura.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Orioko balearena*

A. Martin
Zugandikan espero
nezakeen hau're
erromantizismoan
baizara cum laude.
Ene ze dezepzio
ta ene ze fraude!
Zelai ederra baina
loreak nun daude? (bis)

S. Colina
Arrunkeriak hobe
bazterrera laga
ni romantikoa naiz
badakizu hara!
Bada azukreari
tori mermelada!
Zelaia hor dago ta
lorea zu zara. (bis)

A. Martin
Lehendikan baneukan
horrenbeste ego
piropoa ondo dago
beraz hontan bego!
Ta esmokindun honek
harrera ze bero!
Tipo hau izango da
zure aita edo. (bis)

S. Colina
Tipo hau kontratatu dut
eta nahita aizu
zure aldamenera
etorriko zaizu
diskreto eta lasai
inoiz ez berritsu
patata frijituak
eutsiko dizkizu. (bis)

A. Martin
Bale ta esango diot
"Lurrean eseri
ta nik agindu arte
egon zaitez geldi"
Aizu baina makil hau?
Nik ezin dut segi
sadoa probatzeko
ez al da goizegi? (bis)

S. Colina
Makila ez da detaile
erridikulua
ni tipo otsana naiz
ez, ez naiz txulua
metafora bat da ta
dandy titulua
bizitzan ni izango naiz
zure makulua. (bis)

A. Martin
Kadia ondo dago
ondo ta hala're
golfoa eta golfa
gaude parez pare
zu dotorea zara
nola ez egin galde?
Baina ni zutik nago
makulurik gabe. (bis)

S. Colina
Ta eutsi ezaiozu
adorez beteta
Corte Inglesen erosi
nuen nik txaketa
baina hobe egitea
guk azkar buelta
trajedunak orduka
kobratzen du eta. (bis)

A. Martin
Urduri ikusten zaitut
ia-ia jauzika
kontratupean egin
al digu bisita?
Bizia ederra da
zurekin bizita
hasi zaitez prestatzen
hirugarren zita. (bis)

S. Colina
Nunbait bigarren zitak
zor hirugarrena
izango da ezusteko
zoragarriena
ikusirik ja amets
real bat zarena
alkilatu behar dut
Reale Arena. (bis)

A. Martin
Lehenengo zelaira ta
gero Arenara
gero ilargirako
buelta beharbada
zelaian jardun gera
hona eta hara
orain goazen etxera
sator lanetara. (bis)

MARKINA-XEMEIN
(BARINAGA)

2023-01-21

Bertsolariak
Nerea Ibarzabal eta Andoni Egaña
Gai-emailea
Joseba Sololuze

San Anton jaiak direla medio antolatu du bertso afaria Barinagako Jai Batzordeak Iturritxu elkartean.

A. Egaña

Ariketa: Puntuak erantzun, gero eta neurri luzeagoan.

Neurria: Lauko txikia
Doinua: *Orriak airez aire I*

***Biba zuek*-en ondo**
ikusten zaitugu
bertsotaz dakiguna
han azaltzen dugu. (bis)

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Haizeak bidali du*

Bertsokideei buruz
iritzi ematen
beti-beti ez da hain
errexa izaten
beteranoak nola
probatu dezaken
halare ez det beti
egirik esaten.

Neurria: Hamarreko handia
Doinua: *Sentimentua sartu zitzaidan*

Bertso batean egin ezazu
txapelketaren kronika
finalerdiak sekula baino
hobeak ziren apika
ta finalean heldu zenean
han zortziren ika-mika
nabaritu zen hernaniarran
artea eta praktika
beste zazpiak bere aurretik
bidali zitun korrika. (bis)

Neurria: Zortzikoa, berdinaren
moldekoa, 6 puntuz
Doinua: *Aresoarren bandera*

Pasatu zen txapelketa
orain dator gogoeta
hainbat areto bertsozale fin
ta onez beteta
bihar nahiz etzi zer gerta
egin zagun azterketa
bertsolaritzan etorkizuna
jokoan da eta. (bis)

Neurria: Hamaseiko berdina,
8 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *Baserrian jaio nintzan*

Noiz arte segi nahi duzu
kantari plazarik plaza?
Baldin badaukat indarrik
irteten bazait arnasa
gustokoa dut benetan
bertsogintzaren konpasa
hobeki ezin ninteke
beste ezertan erlaxa
bertsoa beti nola den
halako sorpresa-kaxa
estutu egin behar da
norberaren kalabaza
baina jakin behar nuke
noiz segi eta noiz pasa
ta norbera konturatzen
ez da izaten erraza.

AZPEITIA

2023-01-28

Bertsolariak
Unai Iturriaga eta Jexux Mari Irazu

Bertso Egunean, Oilo Soro Elkartekoa izan da antolatutako bost bazkarietako bat.

U. Iturriaga - J.M. Irazu

Gai librean

Neurria: Bederatzikoa, handiaren moldekoa, 6 puntuz
Doinua: *Iparragirre abila dela*

U. Iturriaga
Bete ditugu birikak ondo
ta kargatu dugu pila
gogoratzea hegaldi modun
jarri behar dela mobila
behin puxika hustuta
ezin gara ezkuta
parean dugu kuadrilla
hasi gaitezen berriro ere
Oilo Soron arto bila. (bis)

J.M. Irazu
Nahiz ta sabela gelditu zaigun
dexente xamar beteta
oraindik bertso goserik bada
artoz aleka aleka
ote da Oilo Soro?
Agian oilo zoro
Azpeitian zenbat buelta!
"s" ta "z" Euskaltzainditik
libre xamar daude eta. (bis)

U. Iturriaga
Hara Larraulgo gure lagunak
bi txori jo ditu harriz
batetik bota ziri polita
oso elegantzi handiz
bai "s" eta "z"
Bizkaian be' oreka
topatu ezinik gabiz
baina soroak eta zoroak
bereizten ditugu begiz. (bis)

J.M. Irazu
Abilidadez hornitu xamar
heldu zaigu durangarra
hortik segika gaurkoan nekez
jo behar dizut adarra
baina Unai galdera
doa zure aldera
begiz bereiztu beharra…
Erlojukoa zer ote degu
oiloa edo oilarra? (bis)

U. Iturriaga
Nik miopia galanta daukat
baina begitu diogu
ikusten dut hor gandor bat eta
bueltan hamabi ordu
oiloa ala oilarra?
Ez da galdera txarra
baina ze erantzun modu?
Ez dezagula guk presionatu
berak erabakiko du. (bis)

J.M. Irazu
Oso elegante atera zera
Unai badezu adurra
baino erantzun gabe utzia
ere ez da gauza xamurra
hor dago erlojua
maiz iragana jua
eta galdera apurra
oilar bat izan ote liteke
Oilo Soroko ikurra? (bis)

Bertsoaroa. Gazteen bertso saioa. Iruñea. 2023-02-15. XDZ

U. Iturriaga
Ikurra baden edota ez den
duda daukat barrenean
baina elkarte hontan egon naiz
iraganean, lehenean.
Hemengo bazkideak
a ze jende libreak
hasten badira edanean!
Nonbait etxera joaten dira
horrek kantatzen dunean. (bis)

J.M. Irazu
Kukurrukua izate al da?
Eta tartean bi trago
beraz hemengo jende irekiak
beti nahi du bat gehiago
eta gero etxera
nahiko pozik antxera
eginez gero bi trago
eta su pixka't piztuta ere
extintorea hor dago. (bis)

U. Iturriaga
Ikusten nuen eskultura bat
jarrita hor horman zehar
baina extintore bat dugu antza
ez hain luze ez hain mehar
ta sua pizten bada
hor kakotik atara
baina bazkideak dar-dar
euki daukate, ta gero martxan
ipintzen be jakin behar. (bis)

J.M. Irazu
Extintoreak ta holakoak
ba al dakigu zer dian?
Hoiek ondona egoten dira
txintxilik geldi-geldian
bertsoak bere sua
du lehenego pausua
arreta jarri begian
ea ba hemen zer topatzen dan
aurreko oilategian. (bis)

AZPEITIA

2023-01-28

Bertsolariak
Jone Uria eta Sustrai Colina

Bertso Egunaren baitan Oilagorra elkarteko hau izan da apailatu den bertso bazkarietako bat.

J. Uria- S. Colina

Gai librean.

Neurria: Zortziko txikia
Airea: *Gizona da zoroa*

S. Colina
Ardoa edaten dut
txuritik beltzera
denetik sartu behar
baita sabelera
zuri begira jarri
naiz Jone ta zera
ongi-etorri zuri ere
krianza[1] fasera.

J. Uria
Niri ere heldu zait
kriantza orena
norbaitek noizbait eman
baitzidan ordena
niretzat zerbeza zen
hauturik onena
baina tripa hau ez da
garagardoena. (bis)

S. Colina
Konparatuta ume
eta garagardo
ez da ezer aldatzen
Jone aroz aro
biak betetzen dute
tripa eta aho
ta horrek eman baietz
gaupasa gehiago. (bis)

J. Uria
Gaupasak iritsiko
dira parez pare
lehen ere ez ziren
nunbait nobedade
zuk badakizu eta
egin beharko galde
behintzat gaupasa al dator
resakarik gabe? (bis)

S. Colina
Ba hara erantzuna
entzunik galdera
dena da askatasun
ta indar galera
ekainetik aurrera
sartuko baitzera
hiru urte iraungo ditun
resaka batera. (bis)

J. Uria
Hara zer dugun beraz
eskaparatean
hor batek ere ez du
oso apartean
sartuko omen gara
hala esatean
denbora mugitzen ez
den tunel batean. (bis)

S. Colina
Ta tunelean dena
suertatzen da gaitz
baina hori pentsatu
behar zenuten garaiz.
Inbidia ematea
nahiz ez gustatu maiz
ni uaintxe tuneletik
irteten ari naiz. (bis)

J. Uria
Ta hargatik ari da
ja ontzen ardoa
txarrena omen duzu
ustez igaroa
baina pasa ekaina
uztail, azaroa…
Ta ohartzerako hortxe
nerabezaroa. (bis)

S. Colina
Nerabezarotik nahiz
ez naizen salbatzen
ta tematuko diren
dena eraldatzen
nere aldeko onurak
pentsatzera goazen:
nerabeei pardelik
ez zaie aldatzen. (bis)

1 Haurdun dago Jone Uria

AZPEITIA

2023-01-28

Bertsolariak
Ane Zuazubiskar, Maddi Aiestaran, Maialen Lujanbio, Sarai Robles, Peru Abarrategi, Eñaut Martikorena, Joanes Illarregi, Xabat Illarregi, Aissa Intxausti, Josune Aramendi, Ander Fuentes *Itturri*
Gai-emailea
Ane Ezenarro eta Imanol Artola *Felix*

Pandemia ondoko murrizketarik gabeko lehen Bertso Eguna ospatu da Azpeitian. Eguna borobiltzeko bertso afaria egin da Azoka Plazan, Elikaguneak prestaturik.

A. Zuazubiskar – M. Aiestaran

Gaia: Ahizpak zarete. Gurasoen etxean bizi zarete oraindik. Gurasoek esan dizuete haien etxean bizitzen jarraitzekotan, janaria prestatzen hasi beharko duzuela. Hortaz, berandu baino lehen, Elikagunea-ko sukalde ikastaro batean eman duzue izena.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Nere gogoa hegan dijoa*

A. Zuazubiskar
Hogeita bostak beteagatik
patuak hona narama
oraindik ere etxe jabeak
dira aita eta ama
ikastaroan eginagatik
arratsalderako plana
gure aitak igual ez ditu jango
tofua eta seitana.

M. Aiestaran
Arreta ondo jarri dezu bai
gurasoen hutsunean
guk guretik gaur jarri nahi degu
ai ahalegin xumean
baino ez dakit zertan hasiko
garen Elikagunean
ez ote dugu ba ikasiko
alde egiten dugunean?

A. Zuazubiskar
Etxean nola hastea berez
halaxe zaigun kostatu
ikastaroan nahi genituzke
oinarri batzuk freskatu
baina badut nik estrategia
on bat Maddi ez kezkatu
lehen aldiz txarra egingo dugu
baietz berriz ez eskatu.

M. Aiestaran
Hutsegiteak beti bezela
mejora egingo digu
hanka sartzeak mejoratzeko
bidea beti hori du
nahiz ta buruan errezetetan
ez izan hogeita hiru
delicatessen ez jakin arren
bizirauten badakigu.

A. Zuazubiskar
Makarroi eta arroz artean
betetzen dugu muturra
jan ere hala egiten dugu
erdi tapatuz sudurra
ta esan duzu hori ba gutxi
Maddi dakigun apurra
olla expresak ematen baitit
oraindik ere beldurra.

M. Aiestaran
Ta kursilloa egin ostean
ere nahi haina bertute
ez duzu izango nahiz hontan pasa
beste hogeita bost urte
aita ta ama pozik dauzkagu
ikastaroaren truke
ta gero berriz etxera joan ta
eurek egingo digute.

A. Zuazubiskar
Nik errezetak idatzi ditut
ondo ikastarokoak
pentsa ezazu aita ta ama
berez ez dira tontoak
baina etxetik joandakoan
garenean kanpokoak
baietz tuperrak orduan izan
zero kilometrokoak.

M. Aiestaran
Gerora ere arrazoi dezu
tuper hori etxen alde
egingo dugu erreza baita
eta gainera debalde
aita ta amak eginez gero
gure dohain faltez galde
esango degu ahal degunean
egingo degula alde.

DONOSTIA (AÑORGA)

2023-02-03

Bertsolariak
Beñat Gaztelumendi, Alaia Martin, Eñaut Martikorena, Unai Agirre, Uxue Alberdi eta Eli Pagola
Gai emailea
Saroi Jauregi

Energia burujabetzari buruzko bertso saioa izan da Añorgako Antzoki Zaharrean, Añorgako zenbait bizilagunek, Saretuz-ek eta Setem Hego Haizea-k antolatua.

B. Gaztelumendi - A. Martin - E. Martikorena – U. Agirre – U. Alberdi - E. Pagola

Gaia: Unai, adinean aurrera zoaz, 50 urte betetzeko ez zaizu asko falta. Beti izan zara idealista bat, mundua aldatzeko prest dagoena. Zure azken proiektua bigarren eskuko gauzak salerosteko denda bat irekitzea izan da. Atzeko bostak lagunak dituzu, Unai, eta lagunak direlako, edo errukituta, edo… dendara etorri zaizkizu zerbait erostera. Bakoitzak esango du zeren bila etorri den, eta ea Unaik dendan baduen bakoitzak erosi nahi duena.

Neurria: Bederatzikoa, handiaren moldekoa, 6 puntuz
Airea: *Iparragirre abila dela*

B. Gaztelumendi
Unai Agirre hemen daukazu
aldamenean fan kluba
zuk elikatu dezu bertsoa
ta elikatu kultura
hementxe nabil bila
aurki azal dadila
gordea izango duzu ba!
Hemezortzi urte zeneuzkaneko
jertse gris dotore hura. (bis)

U. Agirre
Bai banituen jertse mordo bat
berdin urdinak ta beltzak
ajaturikan izaten ziren
kaputxa barru eta ertzak
grisa eta morea
hura zen dotorea
halaxe iruditzen zat
jertse bat gendun neretzat baino
bi egin leizke zuretzat. (bis)

A. Martin
Ikusi ditut zure Snoopya
Heidia eta Plutoa
objektu asko iruditu zait
etxekoa, gertukoa
lehen ginen iraultzaile
ta orain bi galtzaile
koherentziak lutoa
amets xahar bat erosi nahi dut
hirugarren eskukoa. (bis)

U. Agirre
Snoopy eta Pluto aipatzen
nahiz ta gogor zeran hasi
atzera bueltan etorri eta
nostalgian zenbat dosi!
Baina barka Alaia
badaukat saldu nahia
ta ez dakit nola josi
ametsak egin egin behar dira
ezin litezke erosi. (bis)

U. Alberdi
Idealista punto eus-ek du
saltzeko afizioa
nik gustuko dut literatura
ta neuronen frikzioa
ta maite dut Aresti
ez da saltzen garesti
letzea dut bizioa
ba al daukazu *Harri eta herri*-ren
lehenengo edizioa? (bis)

U. Agirre
Berak Aresti esan du eta
begi-niniak brillatu
nere burmuina atzera bueltan
nahi zuen korapilatu
saltzea nun helburu
nik hamaika liburu
ta hortxe ditut pilatu
bertan badala uste det eta
joan da zerorrek bilatu. (bis)

E. Martikorena
Ba bilatzeko lana zutzat'e
izan dadin segurua
nahiz nik ez izan irakurrita
Uxueren kopurua
Agirretar anaiak
kanturako dohaiak
neukan disfrute purua
ba al daukazu hoi prestatzeko
hartu zenun liburua? (bis)

U. Agirre
Orduan sarri egoten zera
bi anaiori begira
ezer hoberik egiteko zuk
ez al daukazu, sikira?
Esan dezunez gero
erantzungo det bero
liburu batzuri tira
bakarrarekin ez da nahikoa
hortako asko behar dira. (bis)

E. Pagola
Aurreko denei demandei ondo
erreparatu diezu
beraz boskarren saiakera bat
igual egin dezakezu
Unai bitartekari
nahi bazenuke ari
leku onean zaude zu
ahots eder bat lortu nahi nuke
anaiana ba al dezu? (bis)

U. Agirre
Egia da bai nere anaiak
badu hamaika bertute
ta berarekin ikasi det nik
pausoz pauso, urtez urte
saldu degu ahotsa
sarri ta hau da poza
txalo sinple batzun truke
baina Eli gaur aukeran balitz
erosi egingo nuke! (bis)

PASAIA (PASAI DONIBANE)

2023-02-04

Bertsolariak
Uxue Alberdi, Amets Arzallus, Sustrai Colina, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Alaia Martin
Gai emailea
Amaia Agirre

Bixi-bixi Elkarteak antolatutako saioa, Juanba Berasategi Auditorioan.

A. Arzallus - M. Lujanbio

Gaia: AHTko tunel bat Lezetxikin barrena egin dute. Euskal Herrian giza aztarnarik zaharrenak topatu diren lekua da, Arrasaten dagoen kobazulo hori. Zuek zarete, Maialen eta Amets, aurkikuntzaren berri eman duen espeleologia taldeko bi kide.

Neurria: Zortziko handia
Airea: *Menditarra naiz eta gogoan*

M. Lujanbio
Berdin Ekaingo zaldiak ala
paretako hatzaparra
iraganeko ondarea ez
beti nahi dute biharra
eta tunela eta zuloa
bide zuzen ta zeharra
Euskal Herria leze haundi bat da
leze haundi bat bakarra.

A. Arzallus
Kronologian trazatuz gero
iragan alderantz marra
Lezetxikiko sabaietatik
estalaktiten negarra
eta ondoan tren tunel baten
hormigoi basa zakarra
horra hemen bi abiadura
baina denbora bakarra.

M. Lujanbio
Agintariak artaburu ta
jendea igual ganadu
gizarte honek aurrera aurrera
itsu-itsuan dihardu.
Kultura bada Guggenheim-a da
diztira eta goi gradu
ze ondareak ze balio du
sosik ematen ez badu?

A. Arzallus
Tren berri bati hortxe dabiltza
lur bideak erdibitzen
eta denbora akzeleratuz
mundua eskuan biltzen
ta Lezetxikin su baten bueltan
gauero ziren hurbiltzen
progreso honi deritzo baina
haiek zekiten bizitzen.

M. Lujanbio
Baina AHTa egin behar zen
konstruktorak dira jabe
bi milarako, hamarrerako
hogeirako hiru AVE
oaiñ hogeita hamar esango dute
edo geroago are
AHT egiten dutenerako
bihurtuko da ondare.

A. Arzallus
Gogoan daukat iragarri zun
Ardantzan zaharran txamarra
Urkuluk ere aipatuko zun
noizbait bi mila ta hamarra
bi mila eta berroit'amarren
bukatu liteke marra
hain tren azkarra izateko ere
ez al da motel samarra?

M. Lujanbio
Baina jakina logika hortatik
hemen ezin gara irten
Lezetxiki ta zenbat holako
diren zaila da jakiten
baina Europa ta EAJ
negozioei eragiten
ta zementerak biraka eta
patrikak diru egiten.

A. Arzallus
Kontraesan bat bada sakona
kontraesan edo jolasa
hemen denbora azkartu nahi da
horren bila dabil masa
fuera mendiak ta ordu erdian
irabazia, arnasa
ta gero inork ez du jakingo
ordu erdi hori nun pasa.

U. Alberdi - A. Martin

Gaia: Otsailaren 4a, Santa Ageda bezpera izateaz gain, minbiziaren nazioarteko eguna ere bada. Bularreko minbizia duten bi herritar zarete; kezkatuta eta nekatuta zaudete Onkologikoaren zerbitzuak hartu duen norabide desegokiarekin: diagnostikoa jaso aurreko honak eta harak; analitika zuen herrian; ekografia erresidentzian; biopsia onkologikoan; tratamendua hasi arteko egunak eternalak; itxaron zerrenda amaigabea. Gaur ere bazoazte kimioa hartzera eta medikuak ate aurrean protestan ari dira pankarta atzean.

Neurria: Zortziko handia
Airea: *Goizian goizik jeiki ninduzun I*

A. Martin
Diagnostiko bat bihurtu zen
beldur ta ondoren malko
orain arropak min egiten dit
ta bota behar dut talko
aterantz goaz giroa dago
bi zentzutan barrurako
sendabiderik topatu arte
osasungintzarentzako.

U. Alberdi
Aspaldi dantzan jarrita dugu
nerbioekin sabela
batzuk bular bat daukagu sobran
besteek aldiz gibela
egunkaritan irakurtzen dut
ez dut ulertzen bestela
eta halere sinistu nahi dut
esku onetan gaudela.

A. Martin
Esku onetan gaude gainean
nahiz ibili zenbait putre
onkologiko hau desarmatuz
joan dira urtez urte
eta begira esku hoietan
ere sinetsi nahi nuke
gehien behar diren inbertsiotan
bisturia pasa dute.

U. Alberdi
Gu kontsultara iritsi ginen
kozkor txar baten harira
eta geroztik gure etxean
beti beldurra ari da
osasungintza publikoari
eman nahi nion segida
baina lagunak dauzkat gaixorik
pribatuari begira.

A. Martin
Izarapean ta batapean
haragituz mila mamu
begiratu ez nuen garaiaz
zenbat min ta zenbat damu
pribaturaino nork daki joan
ez nintekeen etzidamu?
Agian atzo bertan nengoke
dirurikan baldin banu.

U. Alberdi
Nik publikoa defendatzen dut
arrazoiz bihotz ta buru
ta aldarri hortan mantendu nahi dut
ta egon nahi dut seguru
baina kontsultaz kontsulta biok
hainbeste itzulinguru
gaixo gaudenok hil ala bizi
konfiantza behar dugu.

A. Martin
Nora joan maiz begiratzen dut
lehen solairuko mapan
gero kimio pixka bat jaso
ta ongi izatea faltan
nola bilatu konfiantza hori
barne beldur zalapartan
eskuak hotzez geratzen zaizkit
konfiantzaren pankartan.

U. Alberdi
Beraz eskuek ere pankartan
egiten dizute dar-dar
ta bihar ehun izango gara
nahiz eta gaur garen hamar
gure aldetik nahiz ta indarrez
gabiltzan ja makal xamar
eskuinerantza doan herri hau
zuzendu dezagun azkar.

IDIAZABAL

2023-02-05

Bertsolariak
Aitor Mendiluze eta Nerea Elustondo

San Blas jaiak direla medio, bertsolariekin hamaiketakoa antolatu dute Idiazabalgo plazan. Idiazabalgo bertso taldea, udala eta Illati euskara elkartea aritu dira apailatze lanetan.

A. Mendiluze – N. Elustondo

Gai librean.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Agur sagar beltzeran*

A. Mendiluze
Hasi bagera hasi
xuabe-xuabe
eginak gaude hemen
mahai-bueltaren jabe
baina beste zerbaitez
egin nahi det galde
nahiz eta jarri geran
denok parez pare
igual proportzioan
aker asko daude. (bis)

N. Elustondo
Bide hori hartu dezu
ta nik hortik segi
nahiz ta sortu laiteken
hainbeste aberi
bizitza hontan bada
nahikoa komeri
eta aker mordoa
da hemen ageri
zuretzat asko daude
neretzat gehiegi.

A. Mendiluze
Baina hori izango da
zure parezera
eta ausartuko naiz
zerbait galdetzera
errexa da esaten
akerra ta zera
gaur denak bildu gera
mahaiaren ertzera
ta esan Nerea gaizki
sentitzen al zera?

N. Elustondo
A ze ziria bota
didazun bertsotan
nahiz eta hori egiten
didazun askotan
kantuan hasiko naiz
erantzun asmotan
aker gehiegi daude
igual gaurko kortan
ea domatzen ditudan
akelarre hontan.

A. Mendiluze
Ez da errexa izango
hemen kunplitzea
mahai bakarraren bueltan
denak kabitzea
baina zerbait nahi nuke
ondo argitzea
nahiz eta posible den
libre aritzea
nere kulpa al da zu
gaizki sentitzea?

N. Elustondo
Eta berriro ere
albotik zirtoka
munduan bada mila
ta arazo mota.
Ez dakit den kasuala
edota konplota
baina beste behin ere
honuntza igota
jarraitu beharko da
munduaren kontra.

A. Mendiluze
Munduaren kontra ta
ia borrokara
etorri zerana zu
bertatik bertara
batzuen zalantza ta
besteen ikara
pakeak egitea
bakarrik falta da
zu ondo sentitzeko
zer falta ote da ba?

N. Elustondo
Hortarako ez dago
gauz gutxiren faltik
lanean segi behar
genuke haatik
eta nolabait segi
nahiko nuke hortik
ez dakit zuk dakizun
nik ederki dakit
Aitor zer ikusten da
pedestal hortatik?

A. Mendiluze
Ia hemendikan zer
istori igorri
zein aipatu ta gero
zeinengana korri.
Esan beharko dizut
bi masailak gorri
zeini kargu hartu hona
etorri den horri
edo beste zenbaiti
ez dalako etorri?

N. Elustondo
Ze nolako ataza
jarri dezun hemen
baina erantzuteko
badut nahiko kemen
akerrak larreetan
beti hain nabarmen
eta ahuntzek orduan
egin behar amen…
Batzuk etorri ezean
etorriko ziren.

A. Mendiluze
Beraz ahuntzarengatik
betiko ohituran
ez dezu esan zenbat
faltatzen ditudan
berriro ere dudan
adarraren mugan
argi erakutsi dezu
ikusi da zugan
horrenbeste zergatik
maitatzen zaitudan.

N. Elustondo
Ba bai nolabait ere
hortik ekitea
izan liteke hemen
kolpeko zinpea
baina esan behar dut
gaur egitatea
holakoa ote da
gaurko elitea?
Planaren parte al zen
ihes egitea?

A. Mendiluze
Hasieran hasi naiz
gozo atakean
eta aldamenetik
zu jo eta kean
bistan da ez gerala
moldatzen pakean
ni konforme nengoke
gerrara joatean
ordu bat zor didazu
lokatzen artean.

N. Elustondo
Rekuperatzeko nahi
zenuke parada
behingoan murgilduak
gu lokatzetara
jendeak arnasteai
utzi dio jada
lasai sartu arnasa
gaur biriketara…
Ez du ematen baina
gu lagunak gara.

IRUÑEA

2023-02-09

Bertsolariak
Ane Labaka, Beñat Gaztelumendi, Etxahun Lekue, Julio Soto, Miren Artetxe eta Saioa Alkaiza
Gai emailea
Ander Aranburu

*Bertsoaroa*ren baitan Nafarroako Antzerki Eskolan antolatu dute bertso saioa.

B. Gaztelumendi - S. Alkaiza

Gaia: Pasa den astean PSNren eta Navarra Sumaren botoek eragotzi zuten Mañeruko herria eremu erdaldunetik eremu euskaldunera pasatzea. Aspaldiko eskea da mañeruarrena, eta udalak aspaldi eskea egin bazuen ere, parlamentuak ezetza eman dio.Zuek, Beñat eta Saioa Mañeruko bi herritar zarete. Uste zenuten parlamentuak errespetatuko zuela herritarren gehiengoa, baina azken horren erabakiak etsita utzi zaituzte. Eman beharreko urratsez ari zarete hizketan.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Ludi bizitza abesti gozoz*

B. Gaztelumendi
Baietza irtengo zela genbiltzan
gu biok nahiko seguru
baina oraindik parlamentuan
ze tentsio ta ze gudu!
Mugimenduan segi beharko
eskuz esku, buruz buru
haiek ez dute emango eta
guk lortu beharko dugu.

S. Alkaiza
Parlamentuan zer ote dira
jazarpen adibideak
eskuin aldeko faxistak eta
horien adiskideak?
Zonifikatu egin gintuzten
noizbait herritar libreak
kronifikatu dituzte horrela
hizkuntza eskubideak.

B. Gaztelumendi
Ta gure minak ere dituzte
luzera kronifikatu
herri bat ezin daitekeelako
hirutan zonifikatu
gure eremuan zenbat euskaldun
zenbat ahalegin ta datu!
Hemen garaiak aldatu dira
ta ezer ez da aldatu.

S. Alkaiza
"Jalgi plazara" esaten zuen
lehen Etxepare zaharrak
benga manifa egin dezagun
atera pankartatzarrak
hiru eremutan egin baititu
gure gobernuak marrak
sortu dituzte primera eta
segundako herritarrak.

B. Gaztelumendi
Ta guregana bigarren maila
ia aldiro dakarte
Mañerun ez du euskarak behar
lukeen adina tarte
ta PSN hara hor dago
lehengo taldearen parte
denak baitira aurrerakoiak
euskara agertu arte.

S. Alkaiza
Alde bai baina gero legeetan
zer dugu letra? Metala.
Pisutsua ta mugiezina
ta horrela kontrol mentala
gure ekinez antolatuta
egin protesta letala
politikoek ezin dutena
herriak egin dezala.

B. Gaztelumendi
Baina ez dakit norantza doan
politikaren zientzia
Saioa niri jada bukatzen
hasi baitzait pazientzia
aipatu dute tortura edo
guda baten herentzia
baina hizkuntza bat zapaltzea
ez al da biolentzia?

S. Alkaiza
Biolentzi hura ez zen bukatu
herria bete da malkoz
txikiak gara eta zer egin
boteredunen asaltoz?
Zurikeria da dena orain
arren manifara zatoz
bake garaia faltsu hauetan
gerra ematera gatoz.

A. Labaka - B. Gaztelumendi - E. Lekue - J. Soto - M. Artetxe – S. Alkaiza

Gaia: Datorren igandean Iruñean libertimendua egingo da, *Iruinkokoa*. Bertan, kokobeltz edo zirtzilek, kokoxuri dantzariek, musikariek… eta bertsolariek hartuko dute parte. Eta zu Julio, bertsotan aritzeko deitu zaituzte. Bigarren bertsolaria nor izango den hautatu behar duzu atzekoen artean. Beraiek eskainiko dute euren burua eta zuk egin aukeraketa.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Eguna pasa nekean eta*

M. Artetxe
Libertimendu kontuek dute
oso tradizio zaharra
Behenafarroan berriro ere
hartu duena indarra
ta badakizu Julio naizela
ni benetan hendaiarra
baina Hendaia ekialdekoa
ia baxenafartarra. (bis)

J. Soto
Egia esan neri berdin zait
zu zaren zein probintziko
libertimendu hoietan gabiltz
goizez eta eguerdiko
parrandazale eta ezpainik
ez duzu bela itxiko
eta beldur naiz bukaerara
ez zarela iritsiko. (bis)

B. Gaztelumendi
*Iruinkoko*an atera behar
zaionez puntuari punta
behar da nor ta behar da nora
behar da nola apunta
biok bikote ona ginake
Julio ezin da uka
arropa ere ekartzen dugu
nahi gabe konjuntatuta. (bis)

J. Soto
Igual jendeak pentsatuko zun
"Hara zekartek pijama"
ta arrazoi du galtzak igualak
bai dauzkagu guk, ai ama!
Bertso poteo bat ordea da
egitea erdi bana
bertsolari bat aurkitu behar dut
kontraste egiten didana. (bis)

A. Labaka
Udaberrian esna erabat
duenez neguko hartzak
neska bat behar dezu Julio
hala agintzen du konpartsak
bat behar dezu ezartzekotan
zu bertsolari bakartzat
lasai hautatu nik poltsikoan
guraize batzuk dakartzat. (bis)

J. Soto
Nahiz guraizeak zorroztuak ta
nahiz pelukadun jantzia
Gipuzkoa duzula jaioterri
duzu beti erantsia
xoxote fama daukazuela
ez nago hortaz ahantzia
kasu honetan probintzianak
badu bere garrantzia. (bis)

S. Alkaiza
Kartela ikusi ta Erika doa
ze dezepzio niretzako!
Bueno ordezko izan ninteke
ez diot eginen planto
Saioa Alkaiza aukera onena
naparra gaurko, biharko…
Mikrofonoari ez zenioke
altura jeitsi beharko. (bis)

J. Soto
Nahiz bentaja den Erikak ta nik
kantatzen dugu ordea
ta bertsotan badakizu zuk
dabilkigun umorea
zuri adarrak mozteko baina
sobre behar da adorea
guraizak Anek ditu baina nork
du destornilladorea? (bis)

E. Lekue
Iruinkokoa, izena behintzat
nahiko zelebrea deko
nik kokolotik nahikoa dekot
egia garbi esateko
ta ez dot pegarik behar danagaz
kokotekoka hasteko
eta prest nagio koko kilo bat
jan ta kantuan eiteko. (bis)

J. Soto
Juergista famik ez duzu Etxahun
urri zoaz tabernara
kontrastea ere harrapatzen dut
begiratuz galtzetara
erramientaik ere ez zendun
sartuko patriketara
etorri zaite zu zeu kantura
eta ekarri alaba. (bis)

ORDIZIA

2023-02-10

Bertsolariak
Nerea Ibarzabal, Maialen Akizu, Iker Zubeldia eta Joanes Illarregi
Gai-emailea
Igor Eguren

Emaneurre Taldeak antolatuta Tximista sagardotegian 150 lagunek egin dute Afaria, 35 euro ordainduta. Ondoren izan da bertso saioa.

I. Zubeldia - N. Ibarzabal

Gaia: Iker, Goierriko enpresa nagusi baten urte asko egin dituzu lanean. Hango soldatak eta egoerak salatu, eta kaleratu egin zintuzten. Gaur finikitoa sinatzera joan zarenean zure ordezkoa izango den Nerearekin egin duzu topo.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Espainian behera*

I. Zubeldia
Horrenbeste urtean
fabrikan egona
laster bukatu zaigu
gure zoriona
CAF-ek badauka forma
izatea horma
nahiz eta orain zauden zu
patsetan ondona
igual ez da izango
uste bezin ona. (bis)

N. Ibarzabal
Zu izan omen zinen
langile terkoa
ni berez nagusian
oso menekoa
ta erdi lehengusina
aldamenekoa
curriculuma neukan
bale-balekoa
jarri nuen "Isila
ta esanekoa" (bis)

I. Zubeldia
Baina ezin mantendu
beti isilduta
astea luzea da
hasi eta buka
beti nausin mukiak
ezin ba zurrupa
biali naute baino
fin burrukatuta
aurreko atetik noa
atzetik hartuta. (bis)

N. Ibarzabal
Izan dituzu aski
manifa ta kexa
hola nola eduki
jefeen babesa?
Sindikatua bazen
zure interesa
nagusian mukia
da muki errexa
langilea beti da
beraien klinexa. (bis)

I. Zubeldia
Klinex ugari dago
langileen planetan
izerdia sekatu
dutenak kopetan
zuri jarri dizute
lapikoa ketan
nahiz gustora zabiltzan
oraingo lanetan
pixka't pentsa ezazu
ondorengoetan. (bis)

N. Ibarzabal
Baina gorako nahia
daukagunez batzuk
hala saiatuko naiz
neure lepoa zut
ta txibatu egingo naiz
ta badakit zeintzuk
lan hobe bat eduki
nahiko bazenu zuk
gomendio gutun bat
idatziko dizut. (bis)

I. Zubeldia
Furgoneta zahar baten
munduan ibiltzen
bokadilloak saltzen
inor ez da hiltzen
jendeak beti ez du
hola konprenitzen
aspertzen zeranean
nausiak zerbitzen
nik lana emango 'izut
patatak zuritzen. (bis)

N. Ibarzabal
Harrotu egin zaigu
hara, hara hara!
Parrandetan zerbitzen
pasa behar gaba
ni ez nauzu izango
bertatik bertara
baina enpresa hau noizbait
neuretzako bada
belarriak bajauta
bueltatuko zara. (bis)

Amikuzeko libertimendua. Donapaleu. 2023-02-26. XDZ

MURUETA

2023-02-11

Bertsolariak
Arkaitz Estiballes eta Aitor Mendiluze

Kamiñoko erretegian antolatutako bertso bazkaria.

A. Estiballes – A. Mendiluze

Gai librean.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Mundu hau uzten bazun*

A. Mendiluze
Beraz hirurehun euro
galduta zaude zu
ta orain ondora zatoz
horregatik kexu
hurrengorako igual
ikas dezakezu
besteei dena eman
behar babadiezu
jokoa ez dela errenta
ikusiko dezu.

A. Estiballes
Iruñeara joan nintzen
apustuen gose
eta nire gogoa
nahi nuen han ase
bazen bertsolari bat
zeukan nahiko klase
neurri txiki, doinu
zein neurri luze
baina berriz laugarren
Aitor Mendiluze.

A. Mendiluze
Jakizu hirugarren
jarri nindutela
baina konprenitzen det
erreta zaudela
hirurehun euro galdu
jokatu ta bela
Mendiluzeren alde
zeunden dena dela
uste nuen bertsotaz
bazenekiela.

A. Estiballes
Laugarren esan eta
hirugarren kexa
bueno edozein postu
zegoen errexa
apostua irten zen
nahiko aldrebesa
zure alde jokatu
ta zuri babesa
ta Muniainen moduan
eterna promesa.

A. Mendiluze
Ai nola irabazi
nik ere baneki!
Baina hirugarrengo
postua eseki
biderik ez nezake
gorago ireki
hori gertatzen zaio
eskasa den bati
halere konfiantza
eskertzen da beti.

A. Estiballes
Publikotik bidaltzen
nizun nahiko indar
su txikiren bat bazen
pizteko ze pindar!
Baina berriro ere
Aitor bihar, bihar…
Aitortu behar dizut
egin nuen negar
irabazteko ez bada
ez da joan behar.

A. Mendiluze
Irabazteko ez bada
joatea ez da ongi
Arkaitz zure hitz hoien
erantzuna tori
lehenengora joan nahi ta
hirura erori
baina nere errua
ez da izango hori
bota'iezu Mafalda
ta Mortadelori!

A. Estiballes
Mafalda Maialen da
ez zaitez aztora
ta Mortadelo Amets
hori da ganora!
Nik ikusi zintudan
arratsez gustora
goizeko puntuekin
ezin joan inora
gutxienez heldu zaitez
buruz burukora.

A. Mendiluze
Lehen, bigarrengoa…
Nola nabarmendu?
Hobe aldez aurretik
jakingo bagendu
baina han saiatzeko
bakarrik geunden gu
ahal nuena egin nuen
hori ezin kendu
gehien egiten dunak
hoixe egiten du.

A. Estiballes
Zu zeure buruari
ein zenion traba
txapela ikusi zendun
bertatik bertara
akojonatu eta
irabazten laga
oso bide laburra
dago hortik hara
zu mende honetako
Eguzkitze zara.

A. Mendiluze
Eskertzen dizut neri
hori esatea
orain neri dagokit
buelta ematea
badakizu zuk nola
ireki atea
maisu haundia zera
ta Arkaitz maitea
inoiz pentsatu al dezu
berriro joatea?

A. Estiballes
Utzi nuen eta ez noa
gaur gauzak aldatzen
hargatik segi 'zazu
nigatik kantatzen
gaur ni zure ondoan
ta hori egia zen
benetan pozik nago
ta esatera goazen
niri irabazleak
ez zaizkit gustatzen.

A. Mendiluze
Lehen apustu batekin
aurrera atzera
heldu zinen hirurehun
euroak galtzera
orain ez zera ari
aurreko antzera
"Irabazlerik ez zait
gustatzen" ta zera
gustatzen zaizkizu ba
zeu baldin bazera!

A. Estiballes
Aitor bera denean
beti aurpegi alaiz
irabazlearen pultsu
gogo eta usaiz
baina Aitor zalea
beti izan da Arkaitz
ta damutu ezean
noizbait edo garaiz
lau urte barru ere
zure alde joango naiz.

A. Mendiluze
Ezin berezi sarri
txar eta on denik
baina eman ezean
kontrako ordenik
zerbait airean utzi
beharko nuke nik
zu nere alde joango
zera ziurrenik
baina ez dizut esan
neu joango naizenik.

A. Estiballes
Ba joango ez bazina
a ze atsekabe!
Sustrai ta zure alde
noa parez-pare
nahiz eta gero eman
hamaika nahigabe
txikitan bakeroen
pelikulan ere
ni beti joaten nintzen
indioen alde.

A. Mendiluze
Beraz zure aukera
indioa zela
hala bota diguzu
umetan bezela
indioarena da
irudi itzela
indioaren alde
hona zatozela
ni azken mohikano
sentitzen naizela.

A. Estiballes
Zu berriz joango zara
dut itxaropena
har bat daukazu jaten
oraindik barrena
lau urte barru saio
perfekto, zuzena
txapel beltza buruan
merezi duena
baina ez egin berriz
indioarena.

A. Mendiluze
Indioarena utzi
zeure apuruan
eta aritu zaite
maila seguruan
beste denak atzean
utzi inguruan
eta atera zaitez
txapela buruan
ziurtatu hori ta
joango naiz orduan.

A. Estiballes
Arkuarekin bota
dizkiot bi gezi
Kupidon antzekoak
sentituz berezi.
Zeuk ikusi sinetsi
edo ez sinetsi
baina txapeldun zara
bihar edo etzi
bertsolari on asko dauz
zulakoak gitxi.

ETXARRI-ARANATZ

2023-02-12

Bertsolariak
Maialen Akizu, Oihana Bartra, Xabat Illarregi, Eneko Lazkoz, Alaia Martin eta Julio Soto
Gai-emailea
Joseba Beltza

Etxarri-Aranazko Udalak antolatutako bertso saioa izan da, herriko Kultur Etxean.

M. Akizu - O. Bartra - X. Illarregi - E. Lazkoz - A. Martin - J. Soto

Gaia: Auzoak zarete, Oihanaren etxebizitza beste guztien erdian dago, eta paretak oso finak direnez, beste denen hots eta zaratak entzuten ditu. Bakoitzaren ze hots aditzen duzu?

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Zer da gaur Donostian*

O. Bartra
Xabat horren da gazte
horren da alegre
noski okupatzea
zeukan bere xede
pisuan behera eta
makina bat jende
guztia entzuten dut
beti alafede
porroari xupada
ematean ere. (bis)

X. Illarregi
Okupa etorri naiz
gaztea, naparra
edifizio hontan
nolako indarra
porro bat hartu eta
dut horren beharra
kejatu egin zara
hori asmo txarra
ni naiz ezer entzuten
ez duen bakarra. (bis)

O. Bartra
Eta Maialenekin
dana ze borobil
ume txiki horrekin
zelan egon trankil?
Hor gauero-gauero
negarretan dabil
sarri diñot "Oihana
lasai" ixil-ixil
ta besteetan nahi dut
nire eskuekin hil. (bis)

M. Akizu
Ba hori egin dezakegu
sarri erdibana
nik ere esaten det
"Ai ama! Ai ama!
Polita da bizia
baino a ze lana!".
Hirugarren pisuan
bizi da Oihana
eta gurean berriz
daukagu sabana. (bis)

O. Bartra
Nik pazientzia daukat
hori garbi bego
baina amaitu ohi dut
batzuetan bero.
Enekogana heldu
gara honezkero
Enekoz kejatzerik
ez ´zazue espero
zerbait entzungo nuke
etxean balego. (bis)

E. Lazkoz
Beraiek badakite
ez zen esan faltik
etxean ez naiz inoiz
irteteagatik
baina eskerrik asko
jakizu zergatik
zuk niri horren argi
esateagatik
zurrunkarik eiten ez
dudala badakit. (bis)

O. Bartra
Alaiak gauez ez du
inoiz errezatu
horregaitik ez nauzu
hainbeste tentsatu
hain dut miretsi eta
hain interesatu
baina zeozerrekin
nahi nuke kexatu
Alaia ez ezazu
hain fuerte pentsatu! (bis)

A. Martin
Bizkarrean espero
nuen nik labana
baina eskertzen dizut
sartu ez izana
intelektuala dut
gaueroko plana
fuerte pentsatu ohi dut
propio Oihana
xuabe esatekotan
pentsatzen dudana. (bis)

O. Bartra
Eta Juliok pentsatu
eta fuerte taupa
auzokide izatea
baina ez da mauka
zerbait euki behar dut
nik Julioren aurka
etxean entzuten da
makina bat zaunka
baina dirudienez
txakurrik ez dauka. (bis)

J. Soto
Zergatik? Ba ez dizuet
esan behar ia
nik paretaz bestalde
ikaragarria
krax, krax, krax entzuten nun
ixilik jarria
arratoi bat zela ta
hain nengon larria
orain badakit dela
zure belarria. (bis)

J. Soto - X. Illarregi

Gaia: Medikuak greban direla, Osasunbidearen egoera, osasungintza… horrekin hasi eta ea nora jotzen duzuen.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Orain hasi bihagu*

J. Soto
Zu azkena noiz joan
zinen medikura?
X. Illarregi
Bi mila ta hamabosta
izango zen uda
gaixotu nintzen eta
neukan kalentura
orduz geroztik Xabat
beti sendatu da.

J. Soto
Sistema pribatura
edo publikora?
X. Illarregi
Pribatuak gaixoa
dakar poltsikora
beraz publiko hortan
itxaron denbora
ta zure txanda egun
baten helduko da.

J. Soto
Itxaron zerrendetan
gaur ez dago giro
X. Illarregi
Nik itxoiten daramat
orain emekiro
probaren bat ea noiz
didaten egingo
hiltzen banaiz ere ez du
inorrek jakingo.

J. Soto
Proba ein behar duzu
baina zertarako?
X. Illarregi
Ea Covida dudan
bilaketarako
bi mila ta hogeitik
naiz zerrendarako
ta esperantzarik ez
dut kontsultarako.

J. Soto
Zu lasai hilko zara
arnasak itota.
X. Illarregi
Asmatikoa bainaiz
baina ez zait inporta
orain artean nahiko
bizita nago ta
alperrik ariko naiz
bizitzaren kontra

IRUÑEA

2023-02-15

Bertsolariak
Beñat Astiz, Izaro Bilbao, Bittori Elizalde, Irantzu Idoate, Maddi Agirre eta Eki Mateorena
Gai-emailea
Iratxe Muxika

Ohikoa da azken urteotan bertsolari gazteekin jaialdia gauzatzea *Bertsoaroa*n. Gaztelu plazako Laban, euskara eta euskal kulturarentzat gunean egin da aurten.

I. Bilbao – E. Mateorena

Gaia: Izaro duela urtebete baserri bat erosi zenuen hiritik aldegin eta lasai bizi nahi zenuelako. Baserri egokia harrapatu zenuen; deus gabe inguruan, lasai-lasai… Azken astean nabaritu duzu furgonetak heldu direla, adreiluak, zementua… Ekik etxe bat egin behar du zure ondo-ondoan.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Dama gazte xarmant bat*

I. Bilbao
Kamioiek zementua
egurra dakarte
etxe bat egiteko
duzu nahiko arte
eta topatu duzu
hortarako tarte
dena ondo zegoen
zu etorri arte. (bis)

E. Mateorena
Ba zure teilatuan
da orain baloia
leku ederra da hau
nolako sasoia!
Ta proiektu honekin
joko dut nik goia
hiru izarretako
hotel erraldoia. (bis)

I. Bilbao
Beraz amestu nahian
zabiltza tarteka
ba esango dudanari
jarri orain arreta
laster galdu behar duzu
hotelan oreka
hona arte ez da inor
etorriko eta. (bis)

E. Mateorena
Baino hona ekarri
nau Izaro ausak
kendu behar ditugu
menditako hautsak
ta onerako izan
ohi direnez gauzak
bestela nori eskatu
Izaro arrautzak? (bis)

I. Bilbao
Hortarako hotela
ez da izango zeru
utzi hotel diru ta
hortako enplegu
nahi ezkero batera
bizi gaitezke gu
ta bizi perfektua
bizi dezakegu. (bis)

E. Mateorena
Sorpresak etorri ohi
direnez tarteka
ta bapaten Izaro
a ze aldaketa!
Zure edo nirean
horren hautaketa
ez dugu egin behar
hotela dut eta. (bis)

I. Idoate - Ma. Agirre

Gaia: Ama-alabak zarete. Zu, Irantzu, Maddiren alaba zara. Unibertsitatean hasi zinen, baina duela hiru urte utzi zenuen karrera. Gaur erran diozu amari.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Gizona da zoroa*

Ma. Agirre
Pisu bat kendu duzu
ondo zuretzako!
Amari esatea
zinez latz delako
eta egindakoa
onartu beharko
ez zenun ta balio
ikasketentzako. (bis)

I. Idoate
Nahiz noizbait gezur batzuk
erran beharbada
laster pasa zitzaidan
klaseen bolada
astean hiru aldiz
etxean alaba
lehenago ez ohartzea
larriagoa da. (bis)

Ma. Agirre
Jo, ta ama bezala
hau ze enbarazu!
Bueno zuk nahiko ondo
jarria didazu
ta galdera bat daukat
egidazu kasu
kazetaritza hain zaila
al zen ba Irantzu? (bis)

I. Idoate
Behintzat horretan jarri
zinuen arreta
kasu pixka't egiten
dakizu tarteka
nik baliatzen dakit
ederki errenta
joan ta ere ez nuen
ezer ikasten ta. (bis)

Ma. Agirre
Ez omen zenuela
zuk ezer ikasten
zer egingo duzu orain?
Ari naiz nahasten
eta zuri ari zaizu
kontu bat ahazten
bertsolariek ez dute
asko irabazten. (bis)

I. Idoate
Ezin baita denetan
berdin irabazi
hobe bertsoarena
lehenbailehen ahantzi
baina orain nahi nuke
benetan ikasi
irailean nahi nuke
medikuntza hasi. (bis)

Arabako Bertso Kuadrilla Artekoa. Finala. Laudio. 2023-03-25. XDZ

DONAPALEU

2023-02-26

Bertsolariak
Amets Arzallus eta Haira Aizpurua

Libertimendu eguna da Donapaleun. Herrian barna karrikaz karrika ibili dira bolantak, zirtzilak, bertsolariak eta musikariak. Toki batzuetan geldialditxoa egin, eta zirtzilek haien jokoa egin dute; bolantek, berriz, dantzak eman dituzte. Arribatu dira helmugara, merkatu plazara. Eta hor, aldizka obratu dituzte mutxikoak, esketxak eta esketx bakoitzaren ondotik araberako bertsoaldia. 700 bat ikus-entzule bildu dituzte haien inguruan.

A. Arzallus - H. Aizpurua

Gaia: (Irulegiko eskuaren aurkikuntzari buruzkoa izan da hirugarren esketxa; zenbait gogoeta serios eta beste hainbeste ateraldi irringarri jokatu dituzte zirtzilek.)

Neurria: Lau puntuko txikia
Doinua: G*izona da zoroa*

A. Arzallus
Irulegin esku bat ez ziren esku bi
izerdi guti ez dut ulertuz isuri:
kirateken, *otirtan, iraukor* ta *zubi*…
Horrek Etxamendiren kantu bat dirudi. (bis)

H. Aizpurua
Itzulpena egina dutela ederki
Zabalik[2] hor dutela orduan ta beti
nahiz ta ez deus ulertu ta joan emeki
egin dute Aranzadik baino askoz hobeki. (bis)

A. Arzallus
Amikuzeko euskaldun zorionekoak
bere aterki, txapel ta betaurrekoak
Irulegiko eskuak lehen mendekoak
zaharragoak dira Zabalik-ekoak. (bis)

H. Aizpurua
Zerrendatua dute ze izen segida!
Baina haien gezurrei ez zaitela fida
Zabalik-ekoei so arituz, begira
hoiek ere bai laister fosilduko dira. (bis)

A. Arzallus
Ez nik egiten diet ohore gorena
ta biba Irulegiko eskuko poema.
Euskera betikoa, euskara lehena
eskuan idazten da ahantzi nahi ez dena. (bis)

H. Aizpurua
Fite aipatu dute, nolako bordela!
Halere apaindua zuten ongi gela
ikusten dugu zaharrak xarmanki direla
baina ez ahantzi geroa gazteen esku dela. (bis)

2 Amikuzeko Euskara Elkartea

LARZABALE-ARROZE-ZIBITZE

2023-03-04

Bertsolariak
Beñat Gaztelumendi eta Haira Aizpurua
Gai-emailea
Aitor Servier

Euskal Herria Zuzenean (EHZ) festibalaren aurkezpena egin da goizean, Espelletenia ostatuan. Horren karietara antolatu du EHZk bertso bazkaria Espelletenian berean.

B. Gaztelumendi – H. Aizpurua

Gaia: Zuek biak EHZko bi militante historiko zarete; Arrosa, Idauze-Mendi, Heleta, Lekorne eta Irisarritik pasatakoak. Urtero bezala, laguntzaileentzako afarirako patata zuritzen ari zarete. Gaur festibaleko larunbata da eta solasean hasi zarete; egungo laguntzaileei buruz, egungo musika taldeei buruz…

Neurria: Lau puntuko handia
Airea: *Manuel Narruk atzo esan dit C*

B. Gaztelumendi
Hara Arrosan zenbat elurte ta zenbat euri erauntsi
ze garagardo eta ze arno eta zenbat baso hautsi!
Ta orain berriz Instagramean lau argazki erakutsi
gaur eguneko laguntzaileek dute fundamentu gutxi.

H. Aizpurua
Gazteak beti harrotu eta uste direla errege
bakoitzak dute haien gogoan mila helburu ta xede
baina uste dut, iruditzen zait, ez dira gure mesede
gazte berriek ez dakite ta patatak xuritzen ere.

B. Gaztelumendi
Nik ere hori pentsatu dut bai hara zenbat gazte berde
laguntzailetzat inguratzen da gugana hainbeste jende
ta hor dabiltza hiru patata txiki ta tristeren mende
gure garaian jaten genitun gordinik zeudenak ere.

H. Aizpurua
Eta taldeak pasatzen dira hemen beti urtez urte
J Martina ta Merina Gris haiek milaka bertute
aurten afitxan agertu dira, baina ez ´zazula uste
bi akordekin moldatu eta musika deituko dute.

B. Gaztelumendi
Hara Belako beraien txandal moderno eta txuria
ta Chill Mafia hori zer degu? Ba bakarrik irudia!
J Martina horrekin ere ipintzen naiz urduria…
Nun daude Fermin Muguruza ta Tapia ta Leturia?

H. Aizpurua
Iruditzen zait gazteen musika dela pixka bat tristea
kostatzen zaie helduengana akordeekin iristea
remixak eta remixak egin hori dutela jitea
baina ez dute gehio asmatzen kantu berriak itea.

B. Gaztelumendi
Kantu berriak egiten denak ibili ohi dira bare
ai kulturgintza nik ikusten dut ja ezerezaren pare!
Bertsolariak ere aspaldi alfertu antzean daude
gure garaian kantatzen zuten inork gairik jarri gabe.

H. Aizpurua
Egia da bai bertsolariak ez dira entzuten gehiegi
Iparraldean ez dira ainitz eta ez dira ageri
joan den urtean baziren batzuk aipaturik mila egi
ta aurten ere gipuzkoarra! Berriz da Gaztelumendi!

B. Gaztelumendi
Zuk Lujanbio nahiko zenuen bere ile ta txamarra
Egaña eta Lizaso ere bikote ezagun xamarra
bizkaitarra da Bizkarra eta Julio berriz naparra
Gaztelumendi da ezautzen deten bertsolari on bakarra.

H. Aizpurua
Gipuzkoatik ekarria du barnean duen jakintza
joan den urtean bero eginta halere plantatu hitza
eta entzuten ibilia naiz, ze tristea den bizitza…
musika ere gehitzen diote! Hori ez da bertsolaritza!

B. Gaztelumendi
Egia da bai gauza raroak dira bertsolarienak
hainbesterako ez du ematen zu ta nire adimenak
ez dakit eta garaiak ote diren aldatu direnak
edo bestela gu garen garaiz kanpo gelditu garenak.

H. Aizpurua
Belaunaldian aldaketa bat gu biak gira lekuko
baina ez dakit guk bezain ongi beraiek duten lortuko
haien ondoan egonen gira, ahal bezain hurbil, gertuko
orain lanean segi dezagun ez dute ta afalduko.

USURBIL

2023-03-04

Bertsolariak
Saioa Alkaiza, Maialen Lujanbio eta Jone Uria
Gai-emailea
Amaia Agirre

Emakumeen Etxearen irekieraren karietara Usurbilgo Parekidetasun sailak bertso bazkaria antolatu du.

J. Uria. - S. Alkaiza

Gaia: Adineko bi emakume zarete, urteak zuen jatorritik kanpora eman dituzue. Baina alargundu ondoren, zuen azken urteak pasatzera herrira itzuli zarete, Usurbila. Elkar ezagutu zenuten gaztetan baina ez zenuten harreman esturik eduki. Bakoitza ze familiatakoa zen bazekien besteak, baina hortik aurrera elkarren berri handirik ez zenuten. Jubilatu etxean elkartzen zarete ia arratsaldero, batez ere hotz egiten duenean. Harremana estutzen ari zarete, nahiko erreserbatuak dirudizue baina gaur atera duzue zuen bizitzan pisu izugarria izan duen gaia: politika, herria, senarrak. Saioa zure senarra etakidea izan zen; ihesi lehenik eta preso gero. Jone, zure senarrak urte askotan izan zuen bizkartzain bat bizikide. Elkarrekin paseatzen zoazte, apenas begiratzen diozue elkarri, baina bat besteari norbere bizitza kontatzen ari zaio.

Neurria: Hamarreko txikia
Airea: *Gizakiak harri bat*

J. Uria
Herriko pankartetan
oihuak ta lemak
zer eta nola egin
gizonen dilemak
hori markatzen zuen
garaiak, sistemak
ta gure sentipenak
ahotik irtenak
hain ezberdin eta hain
antzeko direnak. (bis)

S. Alkaiza
Ene herri bakarrean
zenbat unibertso!
Zuk bizkartzaina ta nik
kontzentra ta bertso
berdin baina ezberdin
ta halare intenso
senarrak hain loturik
hanka eta beso
baina ni egon nintzen
urteetan preso. (bis)

J. Uria
Preso egon zinela
urteetan zer suma
lau horma ez baitira
noski erresuma
nigan aldiz beldurrak
a ze oihartzuna!
Kotxepean begira
eztanda entzuna
beldurrez bizitzea
ez da askatasuna. (bis)

S. Alkaiza
Gurea abokatu
eta dohakabe
politikak bihurtu
zuena mirabe
senarrak lurpean ta
gu hementxe gaude
azkenean zer gara
ba biak goi ta behe?
Aukeratu gabeko
zigor baten jabe. (bis)

J. Uria
Kartzelara bisitan
pasata asteak
niri beldurrak sortu
nire desgasteak.
Arrazoi! Ez gara izan
sekula askeak
ta berdin orain edo
ginela gazteak
besteen begitan gara
euren emazteak. (bis)

S. Alkaiza
Emazte baina ez gara
esan duzu lasai
hurkotzat zaitut eta
ez zara nere etsai
baina bake garaiak
antzuak dira ai!
Paseo bat? Ba ados
egin deigun zernahi
baina halare ez dut
laguna izan nahi. (bis)

J. Uria
Lagun izan nahi baina
igual izan ezin
garai batek sortua
gugan hainbeste min
lagun ez baina segi
nahiko nuke berdin
tarteka mintzatuaz
hartuaz atsegin
ze honi buruz edonon
ezin da hitz egin. (bis)

S. Alkaiza
Ezin da ezer esan
mina garraioa
tertulia bat edo
irrati saioa
mina nola edonon
aspaldi jaioa
gu ez gara biktimak
ta ez entsaioa
baizik izen ta abizen
Jone ta Saioa. (bis)

SENPERE

2023-03-04

Bertsolariak
Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Sustrai Colina, Joanes Illarregi, Nerea Ibarzabal, Alaia Martin, Aitor Mendiluze eta Beñat Gaztelumendi
Gai-emailea
Xalbat Altzugarai

Herri Urratsen aldeko ekimenen baitan *Hitzetik Urratsera* bertso saioa antolatu du Seaskak, Senpereko Larreko gelan. Oholtza gainean Bertsolari Txapelketa Nagusiko 8 finalistak aritu dira.

A. Arzallus - M. Lujanbio - S. Colina - J. Illarregi - N. Ibarzabal - A. Martin - A. Mendiluze - B. Gaztelumendi

Gaia: Sustrai, autobus gidaria zara. Gibeleko zazpiak igo zaizkizu sagardotegitik bueltan. Nola jokatu du bakoitzak? Eta besteak, oroitzen al zarete zuen jarreraz?

Neurria: Bost puntuko txikia
Airea: *Ai gure antzinako*

S. Colina
Hasieran Beñatek bazun enkantua (bis)
dena zen txistu hotsa ta dena kantua
baina botakaz blaitu atzeko bankua
berandu xamar baina naiz konturatua
aurpegia bakarrik zuela santua. (bis)

B. Gaztelumendi
Astigarragaraino etxetik igaro (bis)
santu aurpegia dugun hamaika pikaro
txuleta irentsi ta kupeletik trago
botaka egin eta ja hobeto nago
hurrengoan gidatu polikixeago. (bis)

S. Colina
Eta Joanes bainatu al da sagardotan? (bis)
Txotxa ezpain ertzean sartu ta bertsotan
baina nonbait indarrik ez zen gorputz hortan
ta autobusen basera ailegatzekotan
ni etxera joan naiz ta, hor utzi dut lotan. (bis)

J. Illarregi
Maite dut sagardoa, maite dut sagarra (bis)
neretzat kapitala dugu Astiarra'
planta polita baina nahiko edale txarra
ni zer izango naizen azalpen bakarra:
gipuzkoarra izan nahi duen nafarra. (bis)

S. Colina
Ta Alaiak sartzean zirudin sutila (bis)
baina gero mozkor bat total inutila
oraindik pasilloan ibiltzen dabila
esanez "Egun argi bihurtu dadila"
autobusean dagon kupel baten bila. (bis)

A. Martin
Autobus honek dauka erregaia baxu (bis)
ta marmar batek egin ohi dit enbarazu
kronika bat egiten zabiltza jo ta su
jarraitu hola eta akaba nazazu
barkatuko didazu, baina nor zara zu? (bis)

S. Colina
Ta Nerea sartu da begirada epai (bis)
beste hiru mozkorrak zeuzkala bertan zai
baina ez da ibili hau sagardotan blai
berdin-berdin zitzaion ze bide, ze bidai
besterik gabe ez zuen etxera joan nahi. (bis)

N. Ibarzabal
Juerga kontutarako naiz nahiko nagia (bis)
oin hamar urte izan zen azkeneko aldia
ta osasuna daukat oso nabaria
zu ere ikusten zaitut langile garbia
nik ordainduko dizut bion gosaria. (bis)

S. Colina
Ta Mendiluze zaila da erretiratzen (bis)
ez da inoiz hurbiltzen, ez urrutiratzen
sagardo kupelak'e ez baitu higatzen
harro-harro esan dit "Ni ez naiz fidatzen
eser zaitez atzean ta utzi gidatzen". (bis)

A. Mendiluze
Lehenengo pentsatu det "Mekauen-mekauen! (bis)
Ia Sustraik nora eramaten nauen!"
Bolante haundiak ni behar nau gertuen
ikusirik Beñatek nola bota duen
utzi behar zenidan, arrazoia nuen! (bis)

S. Colina
Maialen sartu da ta beldurra eman dit (bis)
ez bainuen espero hori beragandik.
Ez, ez dute irentsi trago urakan bik
autografoa hemen ta selfia handik…
Hau txapela ospatzen ari da oraindik! (bis)

M. Lujanbio
Txapela ospatzen det kupidarik gabe (bis)
tortilla ta txuleta, tragoa goi ta behe
selfia ta kafe bat xuabe-xuabe
gero likor finetik bi dozena pare…
Kolore txarra dezu, zu ondo al zaude? (bis)

S. Colina
Amets nere atzean jarri da ta hara! (bis)
Irakurtzen omen du Bernardo Atxaga
gero esplikatu dit nor zen Che Guevara
Reala dabilela onenen gisara…
Radio Maria baino okerragoa da! (bis)

A. Arzallus
Beraz ergelena ni naiz gure bizitzan (bis)
besteak mozkortzen, ni literaturgintzan.
Idatzia utziko dizut poema gisan
zure autobus honek dio *Basque Bondissant*[3]
gaur bezain jauzilari inoiz ez da izan. (bis)

3 Autobus enpresa baten izena.

Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketa. Iurreta. 2023-06-03. XDZ

DIMA

2023-03-10

Bertsolariak
Onintza Enbeita, Josune Aramendi eta Jone Uria
Gai-emailea
Idoia Anzorandia

Ez da kasualitatea bertso-saio musikatua antolatu dute eskolako kameran. Musikari lanetan Gari Otamendi eta Isak Arruti aritu dira.

J. Aramendi – On. Enbeita

Gaia: Lagunak zarete. Laster jubilatuko zarete; badakizue orduan denak aprobetxatuko direla zuetaz: haurren zaintza, papeleoak, guztien erosketak… Eta gero, hori dena egiteko gai ez zaretenean zuekin zer egin pentsatuko dute. Baina zuek ez duzue horretarako asmorik, benetako elkar zaintzarako baizik; zuen adinekoekin elkartu eta komuna bat antolatzeko asmoa duzue. Asanblea deitu duzue eta aretoa goraino bete da.

Neurria: Zortziko berdina, 4 puntuz eta 8 silabaz
Airea: *Gure herrian ligatzea*

On. Enbeita
Emoziñoaz negarrez
hasten banatzu parkatu
espektatiba gitxigaz
dogu bilera antolatu
baina aretoa bete da
ta esan geinke gaur altu
sesentaiotxo bagagoz
ja maiatza falta jaku.

J. Aramendi
Maiatza falta bazaigu
ez zaigu falta ez grina
gaurtik aurrerakoa ez
da izango berriz berdina
aldaketa hemen dago
gaurkoa dugu lagina
ez dugulako izan nahi
seme-alaben komodina.

On. Enbeita
Seme-alaba be' beti
ez da amaren laguna
bere erara antolatu
nahi daualako eguna
baina hain gatxa be' ez da
ez da utopia urruna
sistemak egin daiala
guk egin nahi ez doguna.

J. Aramendi
Sistema honi kolpetik
iritsi behar zaio gaba
alperrik ez gara batu
hainbeste eta bertara
begietan sumatzen dut
konplizitatea hara!
Gu ez gaituzte zainduko
ba elkar zainduko gara.

On. Enbeita
Alkar zaindu behar dogu
atsotxu danok apropos
mundua ez daiten izan
guretzat hain leku arrotz
"Zuen sasoia…" esanda
hartzen dabe hainbeste poz
gure sasoia hau be' bada
oraindik bizirik gagoz.

J. Aramendi
Ta lasai bizitze hori
dugunez gure helburu
ezagutzeko ditugu
oraindik hamaika mundu
zenbat urte ta zenbat lan
elkarrekin buruz buru
ba barkatu behintzat hori
zinez irabazi dugu.

O. Enbeita
Alkarregaz bizi gura
dogu ta alkarrekiko
zahartzaroaren kudeaketa
aldatu dadin betiko
gaur ez badogu urtetan
enpoderatuta tinko
Benidorrera joango naz
eta ez naz itzuliko.

J. Aramendi
Beraz Benidorm hor dugu
egongo gara primeran
eta han biziko gara
Onintza nahi dugun eran
baina hori bai gauzatxo bat
behin ipinita aukeran
Pajaritos dantzatu ez
guk egin behar dugu hegan.

BERRIZ

2023-03-10

Bertsolariak
Erika Lagoma, Ander Elorriaga, Bittor Altube eta Eli Pagola
Gai-emailea
Miren Amuriza

Durangaldea Uztabarritzen III. Bertso Zirkuitua ekimenaren baitako saioa izan da Topa tabernan egindakoa.

E. Lagoma - A. Elorriaga - B. Altube - E. Pagola

Gaia: Bittor, atzeko hirurak oso musikazaleak dira, eta musikari buruz asko egiten dute berba. Erikari entzun diozu: "Entzun duzue J Martinaren *Efemerideak*-en bertsioa? Brutala da". Eta segidan Elik "Ba ni Merina Grisen kontzertuan izan nintzen eta zelako esperientzia!". Eta Anderrek "Ba ni nabil Vulk entzuten eta itzela da, itzela!". Hori da kuadrillan egiten dituzten komentarioak. Baina denok daukagu binilozko diskoak bezala B alde bat, eta B alde hori da inork entzuten ez gaituenean entzuten dugun musika hori. Zein da hiru horien B aldea Bittor? Bakarrik daudenean ze ezkutuko musika lista entzuten dute?

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Eguna pasa nekean eta*

B. Altube
Erika antza J Martina
dabil ezin erretira
modernizatu egin da eta
dabil gazteen neurrira
baina Barcena ahizpak alboan
utziko ditut ta tira
bere B listan bakarrik daude
Bizarrap eta Shakira. (bis)

E. Lagoma
Las mujeres facturan entzuten
nabil ekin eta ekin
sekretutxoa nuen nik Bittor
kontatu duzu behinepin
baina beste bat gordeta daukat
azalduko dut zuekin
zeren gauero oheratzen naiz
Benito Lertxundirekin. (bis)

B. Altube
Ba Benitokin obsesionauta
beste bat daukagu mahaian
nahiz eta Ander Vulkekin hortxe
dabil jai hemen ta jai han
goizero bera altxatu eta
dutxatzen zaigun garaian
oi Baldorbaka ibiltzen da hor
Benito imitatu nahian. (bis)

A. Elorriaga
Bai ba imitatzen dut Cola Caoai
ematerakoan zurrut
nire Spotify lista horretan
daude bai *kursada* batzuk
baina Bittortxo esan behar dut
zeren ez dakizu ez zuk
sarritan Miren Amurizaren
bertsoak entzuten ditut. (bis)

B. Altube
Ta hirugarrena Eli ikusten dut
mahai bueltan eserita
ez al du honek bertsolari sen
jarrera, planta ta pinta?
Erreferente bizitzan nor duen
aspaldi dut igarrita
egun guztian dau Maialenen
bertsoak tope jarrita. (bis)

E. Pagola
Ni Maialenek itsutu ohi nau
ederki diozun modun
bat hoberikan ez dut aurkitzen
buruak egiteko boom![4]
Baina begira ze artista klase
gure etxean daukagun
oraindik zai naiz Bizarrapekin
noiz kolaboratuko dun. (bis)

4 "Bum" ahoskatu zuen.

MENDARO

2023-03-17

Bertsolariak
Amets Arzallus, Joanes Illarregi, Maialen Lujanbio eta Alaia Martin
Gai-emailea
Ainhoa Urbieta

Mendaroko Udalak antolatutako bertso saioa *Motxaila Egunar*en inguruko jai giroan. Mendaroko bertso eskolako haurrek ere parte hartu dute bertan, bertsolariei bertso bana kantatuta.

J. Illarregi - A. Arzallus
Gaia: Mendaroko Txirrindulari Elkarteak Kilimontraila antolatzen du urtero. Joanesek izena eman du mendi lasterketan. Asko entrenatu da horretarako. Heldu da eguna eta lasterketaren ibilbidearen erdialdean, hidratazio postuan Amets dago edariak, gelak eta halakoak banatzen. Joanes postura iritsitakoan bien begiradak gurutzatu dira. Joanesek Amets ikusitakoan pentsatu du "Hau mutil puska! Ze begirada daukan!". Ametsek berriz pentsatu du "Hau da baldar puska! Nora uste du etorri dela?". Helmugan ikusi duzue elkar.

Neurria: Zortziko txikia
Airea: *Mando baten gainean I*

A. Arzallus
Prestatu diot gela
eta fruta jana
han ikusi det gaizki
lurrera emana
neretzat difunto bat zan
mendian hil zana
ia milagro bat da
iritsi izana.

J. Illarregi
Milloi bat genituen
gaurko pedalkadak
honera iristea
kostatu pila bat
indar latza eman dit
fruta platerkadak
ta horrek baino gehiago
zure begiradak.

A. Arzallus
Beraz begiak joan
zaizkit zirri-zarra
zure belarritako
ta zure bizarra
beraz konprobatu da
gauza bat earra
begiko errukiak
badula indarra.

J. Illarregi
Lehen gaizki ari nintzen
indarrez topera
gora kostata baina
nahiko errex behera
ez zenuen espero
heltzerik honera
harritu izan zaitut
gutxinez onera.

A. Arzallus
Pasa zaizkizu hiru
dordoka, bi bare
karakolak ez doaz
zu bezain xuabe
hil da izerdituta
indarraren jabe
Joanes galdetzen det:
ze nezesidade?

J. Illarregi
Begia jarri duzu
lehenago barean
ta ez naiz geratuko
erantzun gabean
barea atera zait
lehen hemen behean
eman masajetxo bat
sabela aldean.

A. Arzallus
Beraz ez zenuke nahi
zuk masaia faltik
abilidade hori
nik ez dut haatik
zazpi ordu pasa dituzu
azken denetatik
herri oso bat zure zai
eukitzeagatik.

J. Illarregi
Jendea nere zai ta
nolako problemak
zerbait mereziko du
iristen azkenak
zazpi ordu zu ikusi
gabe joan direnak
nere bizi osoko
ordurik luzeenak.

ZORNOTZA

2023-03-24

Bertsolariak
Igor Elortza, Alaia Martin, Igor Galarza eta Janire Arrizabalaga
Gai-emailea
Jon Ander Urkiaga

Durangaldea Uztabarritzen ekimenaren barruan, Kultur Etxean bertso saio tematikoa egin da. Literatura eta idazleak oinarri hartuta jarri dituzte gaiak.

J. Arrizabalaga

Gaia: 1986an lerro hauek idatzi zituen Itxaro Bordak: "Gauero hiri ezberdinaz amets dagit. Gauero zure itzalari loturik kexu traketsak eztitzen ditut. Gauero metroko arroiletan kantu zaharren gisa maite zaitudala errepikatzen dizut. Eta zuk gauero, kaioletan salgai dauden txori exotikoen ikustera naramazu esanez: "Begira zer ez dugun bilakatu behar". Janire, zuk zer ez zenuke izan nahi zeure bizitzan?"

Neurria: Hamabiko handia
Airea: *Oso polita zara izatez*

Nahiz ta kanonek izaten duten
gugan hainbeste botere
norberak dauka bere barnean
lantzeko hainbeste erliebe
eta ez nuke gura nik izan
goiko horien titere
baina oraintxe galdera horrek
ez dit egiten mesede
berez gaztea nauzu oraindik
ta egiten zait xelebre
zeren oraindik ez dakit ondo
zer izan nahi dudan ere. (bis)

Galdera entzun ta geratu naiz
une batean trantzeko
sentitu bainaiz orientatzaile
gela horrexen antzeko
batxillerrean nituen eta
mila karrera lantzeko
medikuntza bat, kazetaritza
ikusentzuna ostantzeko
ta horregatik hementxe nago
aukera hoiek tarteko
zenbat denpora dudan aurretik
ta zenbat aukeratzeko! (bis)

Baina galderak egitea ongi
etortzen zaigu tarteka
harremanetan ta nigan ere
egiten dut gogoeta.
Ez nuke gura inor alboan
hartzen nauenik kolpeka
ez nuke gura lan bat niregan
uzten nauenik erreta
nahiko nukeela bizitza duin bat
erosoa ta oreka
oraingoz ni neu izatearekin
sobera dudala eta. (bis)

Bertso Eguna - Ahalduntze jaia*. Iurreta. 2023-06-17. XDZ

BIRIATU

2023-03-26

Bertsolariak
Maialen Lujanbio, Maddalen Arzallus, Andoni Egaña, Oihana Iguaran eta Amets Arzallus
Gai emailea
Aimar Karrika

Biriatuko ikastolaren aldeko saioa. Pilota plazan egitekoa zen baina aroaren karietara elizan egin da azkenean.

O. Iguaran-A. Arzallus

Gaia: Kuadrilla bereko bi guraso zarete. Whatsapp talde bereko kide zarete, nahiz gutxitan elkartu. Ametsek noiznahi bidaltzen ditu Whatsapp taldera bere alabaren bideoak; gaur alabaren lehen bizikleta pedalkaden irudiak bidali ditu taldera. Oihana nekatzen hasia dago.

Neurria: Lau puntuko txikia
Airea: *Mando baten gainean I*

O. Iguaran
Beste bidiotxo bat taldera eroria
alabaren bidean daukat teoria
nahiz alaba bizkorra bezain den joria
ez al zaio agortzen inoiz memoria?

A. Arzallus
Alaba ein zenean lehen bertsoen jabe
alaba bizikletan gero aldez alde
gero alaba idazten ta ez zebilen grabe…
Zu ez zaude haserre inbiditan zaude.

O. Iguaran
Inbiditan beste bat dago hartzetik su
zure alaba soilik ez da paradisu
eta lekurik gabe nago ni jakizu
memoria zurea bete dabilkizu.

A. Arzallus
Beste bideo bat ere gordea dut hemen
neroni harriturik naukana mekauen!
Gelditu gabe pasa baitu ordu laurden
begira hortzak nola garbitzen dituen.

O. Iguaran
Pentsa alabatxoa eskuilaren jabe
ta nola mugitzen dun dena aldez alde
hara irriparre bat egin dio galde
lehen bidali zenun bat hortzik ez zula're.

A. Arzallus
Baina orain baditu gainera galanki
hortzez eta mingainez hitzak bai ebaki
lehenago "*Oh yes!*" esan du fuerte, ausarki
lau urte ta jadanik inglesez badaki.

O. Iguaran
Ta alaba ikasten doan bitartean
aita flashan argirik ez du apartean
sei hizkuntzatan daki lehen zekin batean
alabak nola esan "Aita utzi pakean!"

A. Arzallus
Ba atzo ibili zen hor manifa baten
gure banderola zahar ta aldarrikapen
orain berez hasi da Macron fuera! esaten
pena da ez duela botorik ematen.

O. Iguaran
Ez dakit emango dun hartu ezkero su
bidea lehendik ondo agertu diozu
pausoa eman lezake ta atzetik gero zu
botoa zuk zerorrek eskeini zaiozu!

A. Arzallus
Lehen haurrari zaila da hartzea pultsu
bigarren haurra berriz ze goxo amultsu
denak lorian gaude denek noiznahi musu
bi hilabete barru ikusiko duzu.

O. Iguaran
Whatsapp talde batean zeuk bakarrik sona
Taldeko elkarrizketek zure hitzen forma
denak zai gaude noiz den horren egun ona
aitari mugikorra ostuko diona.

A. Arzallus
Egia esango dut eta nabarmena
amaren mugikorra da darabilena
nik ez dut Internetik halaxe dut sena
ongi daki eskasa dela aitarena.

O. Iguaran
Ta nerabezaroan gero ze bertigo
zerorrek sortutako flash, argazki, giro
ondoren azalduko diozu astiro
bideorik ez dezan saretara igo.

A. Arzallus
Beste bat grabatu dut a ze komeria!
Berriz ere muntatu du erromeria.
Ea iristen naizen bidaltzera ia.
Barkatu bukatu da nere bateria.

Bertso afaria. Astigarraga. 2023-06-30. XDZ

LASARTE-ORIA

2023-04-29

Bertsolariak
Andoni Egaña, Onintza Enbeita eta Ane Labaka
Gai emailea
Beatriz Egizabal

Udaberriko bertso saioa antolatu du Ttakun Kultur Elkarteak, Lasarte-Oriako Udalarekin elkarlanean. Kultur etxeko auditorioan izan da *Tradizioari traizio* izenburupean.

A. Labaka

Gaia: Zer suposatzen dizu zuri tradizioari traizioa egiteak?

Neurria: Hamabiko berdina, 6 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *Ze ederra ta ze polita*

A. Labaka
Bertsoz beteta zegoen
gure etxeko kabia
afaria bihurtzen zen
erdi kantu-afaria
hamabi urte ta oholtzan
nere lehenengo aldia
gero dena gorpuztu ta
dena aldatu nahi ia
kontzientegi eteteko
tradizioen haria
agian batzuentzako
ez naiz hain bertsolaria. (bis)

Kortse bat soinean jarriz
plazaz plaza zenbat neke
bost urteko ibilian
eta zorretan geundeke
bizkar emanda kantatu
edo bizkar emateke
tokatzen zitzaigun rola
beti ez genuen bete
tradizio hain zurrunak
zein du iraungitze epe?
Irauten duen guztia
irauli egin daiteke. (bis)

Konpainiatzat hartuta
bide on baten magala
biok zeharkatu asmoz
Euskal Herri hain zabala!
Zalantzan jarriz zer ote
daukagun tradizionala
zer den normala gurean
eta zer ez den normala.
Laister ama izango naiz
ama heterosexuala
hala nahiko nuke baina
ez naiz hain erradikala! (bis)

ERRENTERIA

2023-05-09

Bertsolariak
Andoni Egaña eta Ekhiñe Zapiain

Adin-adin proiektuaren zortzigarren edizioaren baitan, 21 bertso saio programatu dira 2023an, Gipuzkoako 17 herrietako zaharren egoitzetan egingo direnak. Horietako bat izan da hau, Errenteriako Jesusen Bihotzako egoitzakoa. Lankuk proposatu eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batean gauzatutako proiektua da *Adin-Adin*.

A. Egaña - E. Zapiain

Gai librean.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Behin batean Loiolan III*

A. Egaña
Matematikarekin
zertan eman lata?
Ondo begira ´zazu
aurrekoen planta
batzuk larogeirako
gutxi-gutxi falta
baina gehienak daude
pittin bat pasata. (bis)

E. Zapiain
Nik hogei urte soilik
ditut, ze papela!
Nahiz ta oraindik naizen
gazte bat itzela
zuk pasata daudela
diozu horrela
ba nik zahartu nahi nuke
beraiek bezela. (bis)

A. Egaña
Eta nik ere berdin
zalantzarik gabe
begira andre batzuk
ze guapa, ze bare
ia jarri litezke
erreginen pare
aspaldi ez nun ikusi
hainbeste koilare. (bis)

E. Zapiain
Nik ere ez nun ikusi
hainbertze sekula
uste dut planta ona
ederra dugula
diote "Ai Andoni
ze tipo mardula!"
Uste'ut fan kluba ere
etorri zaizula. (bis)

A. Egaña
Berrogei urte plazan
hala da akabo!
Hauek lehen genitun
gazteak zeharo
Virgo venerandana
oraindik hor dago
belaunaldikoa naiz
gutxi edo gehiago. (bis)

E. Zapiain
Belaunaldikoa zu
daukazu ahoan
ta nola denbora're
aurrerantza doan
hauek egongo ziren
nik daukat gogoan
zure lehen txapelan
lehenengo lerroan. (bis)

A. Egaña
Esan dezu lerroa
hauek ta txapela
konparaketa ez zen
batere txepela
nik desio bat badut
ta dudan bezela
zure lehenengora ere
irits daitezela. (bis)

E. Zapiain
Bai ta nahiko nituzke
hor neureganandu
bertsoa ohi dudanez
ahal bezela landu
nahiz eta txapel batek
bueltan nahiko lan du
ea ez den izaten
sobera berandu. (bis)

A. Egaña
Espabilatuz gero
hortxe muga-mugan
pentsa Ekhiñe zenbat
maitatzen zaitudan
bertsotan latz ari da
ta ez duda-mudan…
Hara bertsolaritza
zenbat aldatu dan. (bis)

E. Zapiain
Bai ta aldatzen segiz
badu nahiko lana
bertsolaritzak berez
baduenez fama
Errenterin gaur-gaurkoz
ikasi dut ama!
Bertso eskolan urteetan
ikasi ez dudana. (bis)

OIARTZUN (ARRAGUA)

2023-05-13

Bertsolariak
Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio
Gai-emailea
Karlos Aizpurua

Aldeguna elkarteak urtero antolatzen duen bertso-afaria da. Aurten ere gainezka egin du elkarteak jendez, txartel guztiak salduta.

A. Egaña - M.Lujanbio
Gaia: Aldeguna elkarteko bi kide zarete, bertso-afaria antolatzen ari zaretenak. Ekarri beharreko bertsolariak hautatzen zabiltzate. Ados zaudete Maialen Lujanbio ekartzeko, baina bigarrenarekin ez duzue bat egiten. Andonik Egaña deitu nahi du; Maialenek beste izen eta arrazoi batzuk ditu buruan.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Behin batean Loiolan III*

A. Egaña
Garai batean bera
izan zen errege
batzutan hain serio
besteetan xelebre
gehienetan doi-doi ta
beti oso trebe
Egaña Egaña da
oraindikan ere. (bis)

M. Lujanbio
Egaña Egaña da
egia da, tira
bertsolari gazteei
ordea begira
beti renobatzea
kontua hori da
bertsozale gazteak
helduko badira. (bis)

A. Egaña
Hobe da beterano
bat jartzea leman
hausturaik ez sortzeko
jendean eskeman
enperratuta zaude
gazteen sisteman
gazte, gazte… ta izenik
ez didazu eman. (bis)

M. Lujanbio
Alaia edo Nerea
Amets ere hara
zaharrei egin gabe
beti begirada
ze zaharren artean
hautatzeko jada
Xebastian zaharretan
zaharragoa da. (bis)

A. Egaña
Hiru gazte izen esan
ta geratua blai
Egaña bera dugu
ja *amesteko* gai
Egaña *alaia* da
txiste gehiago nahi?
Eta ez da *nerea*
baina berea bai. (bis)

M. Lujanbio
Egaña somatzen dut
pixka bat arraro
ez dakit ondan edo
zahartuta zeharo
ez dakit dun gaztealdi
edo dun zahartzaro
denean egon nahi du
ta inon ez dago. (bis)

A. Egaña
"Nik Egañaz ez dakit"
ez didazu gorde
"Ai Egaña! Ez dakit…"
izen ta ohore
"Ez dakit ai Egaña
ahal duenan doble…"
Ba zuk ez badakizu
ekarrita hobe. (bis)

M. Lujanbio
Baina elkarte honen
grin ta adoreak
baitira berrikuntzak
ta gaurko loreak
Egaña onena da
non daude hobeak?
Baina ezin gara izan hain
kontserbadoreak. (bis)

A. Egaña
Ai ene Xalbadorren
heriotza bela
ezin dezaket ahaztu
akabo bestela
imajina Egaña
bertan hiltzen dela
Arragua geratzeko
Urepel bezela! (bis)

M. Lujanbio
Erromantizismoa
hobe dugu kendu
pentsa Egaña mahaian
eiten dela zendu
askoz hobeto Sustrai
bilduko bagendu
Egañak sagardotan
gasto asko egiten du. (bis)

A. Egaña
Ba ni ideiaz noa
sustotik sustora
arrazoi Egañana
ahaztu beharko da
Sustrai hiltzen bazaigu
jendea gustora
errexo irtengo da
eskailetan gora! (bis)

M. Lujanbio
Pixkatxo bat flipatzen
hasita al zaude?
Ez jarri hain funebre
ez jarri hain grabe
afaria behar da
parrilla ta labe
gu biziarazteko
ta inor hil gabe. (bis)

ERRENTERIA

2023-05-19

Bertsolariak
Eneko Abasolo *Abarkas*, Irati Alcantarilla, Haritz Casabal eta Haira Aizpurua
Gai-emailea
Jare Antzizar

Xenpelar Bertso Eskolak eta Arkaitza ostatuak antolatu dute *Arkahitzak* izeneko bertso saioa. Ikasturtean zehar hilabetero, hileko ostiral batez eta 23:00etan gauzatzen den bertso saioa da *Arkahitzak*. Gaurkoan ere elkarrekin nekez ariko liratekeen bertsolariak gonbidatu dituzte afari truk. Berriz sortu da giro ederra Arkaitzan, bertso saioaren aitzakian.

H. Casabal - I. Alcantarilla

Gaia: Botilaren jolasean aritu zarete (batek botila itzularazi eta botilak seinalatzen duen hari musu eman behar dio). Iratik itzularazi du botila eta Haritzi fortunatu zaio. Zuek aspaldiko lagunak zarete, bertso eskolan elkarrekin dabiltzanak, eta beraz, tentsioan zaudete, ea zer gertatzen den.

Neurria: Zortziko berdina, 4 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *Gure herrian ligatzea*

I. Alcantarilla
Botilaren jolasean
hasi gara ze arraro!
Laguna aurrean eta
hementxe botila dago
bizi oso bat batera
igaroa dugu klaro
baina gaur egongo gara
inoiz baino gertuago.

H. Casabal
Une hontarako nahiz ta
berez nik ez neukan presa
egia esan irten da
ta suertatu da sorpresa
ze izango da gazia
gozoa edota geza?
Baina trago hau Irati
ez da izango erreza.

I. Alcantarilla
Betidanik euki dugu
biok batera indarra
eta su pizteko ia
bilakatu zaigu garra
gerturatzen hasiko da
berriz bion irribarra
urduri jarri naiz eta
ez da horren seinal txarra.

H. Casabal
Baina ona degun ere
ez da hain gauza pijoa
gure harremana baita
botilaren prefijoa
zu zera borrokilla bat
ta ni yanki bat pijoa
baina nire bixera ere
urduri jartzen dijoa.

I. Alcantarilla
Bixera geratuko da
beraz itxaropenetan
azkenean tokatu da
ta ez gabiltza penetan
zuregana hurbildu naiz
irribarretsu benetan
baina letxuga zati bat
daukazu zure hortzetan.

H. Casabal
Mingainarekin kentzea
ez al da ideia aparta?
Hurbiltzen joan zera zu
bazpare ez zera aparta
eta hurbiltzen goazen
neurri hontan pixkanaka
badaezpada bixera
jarriko det atzeraka.

I. Alcantarilla
Ta orain ikusten dizut
begitan duzun dizdira
baina zergatik ezin naiz
egon beraiei begira
lagunarte batek dauzka
horrenbeste tirabira
baina gure bi bihotzak
elkartu egingo dira.

H. Casabal
Ez diot izan nahi dudan nik
zure umeen aita
bidea ez da hori ta
ez segi hortik jarraika
baina begita' begira
erdi itxiz gero nahita
kontuz agian gehiago
ere ikusiko baita.

I. Alcantarilla
Beraz begiak itxita
ikusi liteke errez
nire begiak zurekin
jarri daitezke aldrebes
baina lagunak gara ta
onartu nahi nuke berez
zuk ez duzu aita izan nahi
eta nik ama ere ez.

H. Casabal
Oraintxe klimax puntuan
gauden unean lehertzear
justu zer tokatzen zaigun
nago Irati ulertzear
gero erabakiko dugu
pentsatu saioan zehar
hemen dauden guzti hauek
ez dute enteratu behar.

Jaietako bertso saioa. Alegia. 2023-07-15. XDZ. Patxi Renobales

PORTUGALETE

2023-05-24

Bertsolariak
Alaia Martin eta Maddalen Arzallus
Gai-emailea
Asier Alcedo

Portugaleteko Merkatuaren urteurrenean bazkariaren bueltan ekin zioten bertsolariek. Lehenik librean zati bat eta gaiekin ondoren.

A. Martin - M. Arzallus

Gai librean.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Kantore berri xarmant batzuek*

M. Arzallus
Asteazkenean hasi zineten
ta joan hala goraka
azkenerako iritsi zaigu
festa amaitzeko data
arratsaldeon, ongi etorri
agurra preziso da ta
merkatu zaharra apain dezagun
bertso berriak botata. (bis)

A. Martin
Arratsaldeon zer moduz gaude
jende jator ta euskaldun?
Xagu soinuak entzuten dira
hala direla demagun
bertakoekin bertakoentzat
bertan nahi genuke jardun
sortu dezuen giro eder hau
auzogestiona dezagun. (bis)

M. Arzallus
Giro ederra sortu duzue
eta txukun egin lana
lau bat egunez bete-beterik
izan duzue programa
nahiz ta herrian batzutan kontra
suertatzen den panorama
esan bezate nahi duten dena:
ederra da auzolana! (bis)

A. Martin
Ederra da ta osatu ondoren
mila ekintzen zerrenda
elkartu diren talde ta tailer
guzti hauek nola zenba?
Baina gaurkoa aipatu eta
begiratzera goazen ba!
Hiru t'erditan bazkaltzen bada
zer ordutan afaltzen da?

M. Arzallus
Atzo parranda egin ondoren
gaur jeikitzeko nagia
eskerrak gero poteoren bat
atera den oparia
eta ondoren ezin moztua
bazkarirako haria
biak batera egin ditut nik
bazkari ta afaria. (bis)

A. Martin
Egia esan ordutegia
izan da kuriosoa
sartu ta ez zen inor barruan
sentitu naiz inozoa
gero plater bat bakarrik eta
postrea ez zen xoxoa
ea saioa trenzatzen dugun
postrea bezain goxoa. (bis)

M. Arzallus
Postrea zen bai oso goxoa
etxeko peto-petoa
supermerkatu baten hartua
baina itxura onekoa
ordutegiaz kexa bat dugu
guk hemen esatekoa
hau ama da ta goiz bazkaltzen du
ta ni Iparraldekoa. (bis)

A. Martin
Egia esan ordutegirik
ez dut bakar bat kuttunik
eta argitu nor egingo zen
esan duzuna entzunik
nik ez nekien bazen okelik
edo bazen babarrunik
hamabietan ta lau t'erditan
bi aldiz bazkaldu dut nik. (bis)

M. Arzallus
Beraz bi aldiz bazkaldu duzu
mezua hola zihoan
baina lehenik seme txikia
eduki duzu ondoan
eta ondoren hona etorri
ta kontua nola doan
oso gutxitan bazkaltzen dugu
holako lagun giroan. (bis)

A. Martin
Bazen nahikoa lagun atsegin
kanturako zenbat jende
eta goizetik horren programa
zabal-luzearen mende
begira hauei ze begizulo
ta gorputzak ze titere!
Holako ajerik ez dute izaten
San Roke jaietan ere. (bis)

DIMA

2023-06-03

Bertsolariak
Jon Maia eta Aitor Sarriegi
Gai-emailea
Ibon Iza

Dimako frontoi txikian aritu dira bertsolariak. Bertso bazkari jendetsua izan da. Lehen partean librean aritu dira; gaiak emanik gero.

J. Maia- A. Sarriegi

Gai librean.

Neurria: Zortziko handia
Airea: *Naparruatik ardo karraio A*

J. Maia
Urte pilo bat lata ematen
nijoa euskal herritan
Dimara ere hogei bat urtez
igual nator ja bixitan
idatzi, kantatu ta filmatu
beti amets bat begitan
eta oraindik ere ez dakit
ze izan nahi dudan haunditan.

A. Sarriegi
Zure apustua ez da izango
noski neurri txikikoa
Dimara etorri eta Jon Maiak
kantatzea tipikoa.
Hala're jakin behar zenuke
gutxienez mutikoa
gauza bat dela betirakoa
ta bestea betikoa.

J. Maia
Betidanik gustatu izan zait
muga gabe pentsatzea
mugarik gabe mugitu eta
nahi dudana kantatzea
berrogeita hamar urte dauzkat ja
ez da pasatzen haizea…
Oraindik ere ez det deskartatzen
Athleticen jokatzea.

A. Sarriegi
Garai batean Negu Gorriak
ta Zumaiako makarra
gero han ta hemen berriz bertsotan
eta ez zen horren txarra
orain kantu bat omen garela
adierazteko beharra
igual marrazki bizidun batzuk
da falta zaizun bakarra.

J. Maia
Neri berdin zait ahozkoa zein
idatziz literatura
politika ere gustatzen zait
ta horri batu kultura
marrazki bizidunetarako
hau, hori edota hura…
Agian neroni izango naiz
neronen karikatura.

A. Sarriegi
Ez da erreza pertsona batek
horrenbeste ematea
zinegotzia ia ez da ezer
gutxiegi alkatea
politikari aipatu dezu
denean dezu artea…
Inoiz pasa al zaizu burutik
lehendakari izatea?

J. Maia
Erdi brometan esan didazu
eta umorez azaldu
trenak pasatzen dira bizitzan
izan hartu ala galdu
horretarako nere buruak
ez dauka hainbeste gradu
baina agian pentsatuko det
herriak eskatzen badu.

A. Sarriegi
Baina bakoitza bagera nonor
ta bakoitzak boto bana
ez da erreza bizkar gainean
eramaten horren zama
borondateaz hitz egin dezu
hau da ulertu dedana
herria zer dan definitzea
daukazu lehenengo lana.

J. Maia
Politikan zer du marketinak
eta zer du industriak
manejatzeko herri ametsak
ta herritarren angustiak?
Neretzat zer ote da herria
nola dantzatu eguzkiak?
Neretzat herria Dima da ta
ondoren beste guztiak.

A. Sarriegi
Nik betidanik uste izan dut
ez gelditzea aparte
dela gauza ona eta horrekin
